



aralar

IREKI BIDEA EZKERRARI

Urretxu eta Zumarragan
Ireki Bidea Ezkerrari

politikagintza
politikagiltza

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO
UDAL PROGRAMA 2011

Edukiak

Gure Iparra-----	3
Gure printzipio eta baloreak-----	3-4
1. Herritarren zerbitzura egongo den hiri-eredua eta alokairuan oinarritutako etxebizitza-politika ausarta-----	4-9
1.1 Alokairuan eta kudeaketa publikoan oinarritutako etxebizitza-politika-----	4-6
1.2 Pertsona ardatza izatea herrion diseinuan eta herri integratzaileak izatea-----	6-8
1.3 Oinezkoak, ibilgailu ez-kutsakorrak eta garraio publiko lehiakorra oinarri izango dituen mugikortasun-eredua-----	8-9
2. Gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratu zerbitzuen kalitatea handitu eta bazterketa sozial oro desagerraraziz-----	9-20
2.1 "Urretxu eta Zumarragako Gizarte Eskubideen Karta" sortu eta gizarte-zerbitzuen publikoa lehenetsi-----	9-12
2.2 Hiri onuragarriak: osasuna, oinarritzko eskubide gisa-----	12-14
2.3 Pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borroka-----	14-15
2.4 Erretirodunak eta pentsiodunen parte hartze aktiboa bultzatu-----	15-17
2.5 Ahalmen urritasunak dituzten pertsona komunitatean integratu eta autonomia sustatu-----	17-18
2.6 Genero-berdintasuna eta sexu-joreen aniztasuna defendatu-----	18-19
2.7 Immigrazioa aukera bat da, ez arazo bat -----	19-20
3. Kalitateko enpleguak sortu tokiko ekonomia berritzailea, ekologikoa eta solidarioa sustatuz-----	21-31
3.1 Kalitateko enplegua sortuko duen plana eta langileon defentsa aktiboa-----	21-26
3.2. Gizarte-ekonomia berritzailea eta balio-erantsi handikoa sustatu-----	26-28
3.3. Lan-eremuan aukera berdintasunaren alde eta bazterketaren aurka lan egin-----	28-30
3.4 Bertako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatu-----	30
3.5 Kontsumo arduratsua sustatu eta bertako merkataritza babestu-----	30-31
3.6 Bidezko-merkataritza eta elkartasun nahiz lankidetzeta-proiektuetan sakondu.-----	31
4. Ingurumenaren errespetuan oinarritutako garapen- eta energia-eredu berrira abiatu-----	32-35
4.1 Jasangarritasun-irizpideak sail eta jarduera guztietan ezarri-----	32
4.2 Energia aurreztu eta kontsumoa baretzeko neurriak hartu; erregai fosilen gutxitzea energia berriztagarriekin ordeztuz-----	33
4.3 Uraren kultura berria eta kontsumoaren murrizketa -----	33-34
4.4 Hondakinen kudeaketa integrala eta zero zabor filosofia bilduz-----	34
4.5 Kutsadurari (airea, Urola ibaia, zarata...) irtenbidea eman-----	34
4.6 Lorategi, parke eta gunek berdeak areagotzea-----	34-35
5. Herritar eleanitzez osatutako herri euskaldun, osasuntsu, kritiko eta sortzailea bultzatu-----	35-43
5.1 Euskara zerbitzua indartu eta euskararen erabilera ardatz izango duen hizkuntza-politikan salto kualitatiboa eman-----	35-36
5.2 Euskara ardatz izango duen kulturgintza sortzaile eta parte-hartzailea bultzatu -----	36-38
5.3 Gazteriaren autoeraketan lagundu eta baliabideak eskaini -----	38
5.4 Bizi-kalitate oneko gizarte aurreratu baten zutabetako bat: kirol praktika askotarikoa eta osasungarria-----	39-40
5.5 Irakaskuntza publikoa defendatu herri-ekimenetik sortutako bestelako hezkuntza-eskaintzak aintzat hartuz-----	41-43
6. Udalgintza- eta kudeaketa-eredua-----	43-50
6.1 Urretxu eta Zumarragako koordinazioan sakondu-----	43
6.2 Udalgintza parte-hartzailea, herritarren ekimenean eta demokraziaren zentzurik sakonenean sinesten dugulako-----	43-46
6.3 Kudeaketa gardena, gertukoa eta irekia-----	46
6.4 Kudeaketa zorrotza eta zerbitzuen kalitatea bultzatuko duena-----	47-50
7. Bakegintzan Gernikako Akordioa da gure iparra-----	50-51

Gure Iparra

Krisi ekonomikoa, udalerrriak zorpetzea, enpresak ixtea eta, ondorioz, langabeen kopuruak gora egitea, ingurumen krisia, politikarien sinesgarritasunaren krisia, aurrerapen teknologikoetara egokitzea, inguruan gertatzen ari diren aldaketen azkartasuna, kulturantzatasuna eta aniztasun etnikoa, euskararen garapena. Besteak beste, horiek dira hurrengo urteetan aurre egin behar diegun erronkak, alde batera utzi gabe, herri honek hainbeste desiratzen duen baketze eta normalizazio politikoa.

Egoera iraultzeko inoiz baino beharrezkoagoa da, ezker indartsu, euskaltzale eta zabala eraikitzea; herritarron eguneroko arazoei erantzunak ematen lagunduko duena. Erantzun estrukturalak, sakonekoak, Urretxu eta Zumarragako herritarron bizi-kalitatea hobetuko duena eta, benetako alternatiba izango dena; alternatiba, eta ez txandakatze hutsa.

Herritarren bizi-kalitatea hobetu, euskaldunok hiltun gisa ditugun eskubideak erdietsi eta ingurumenarekin bat etorriko den garapen-eredua bultzatzeko tresna gara. Azal eta mamiz eragin eta aldatu nahi dugu udalgintza, balio eta jokabide berrietatik eragin eta aldatu, udalgintza eraldatu, funtsean.

Hazkundera oinarritutako garapen eredu batetik, Urretxu eta Zumarragan lan egiten dugun edo bizi garen herritar ororen bizitza kalitatea helburu duen, eta jasagarritasuna, euskalduntasuna, elkartasuna eta herritarren parte hartzea oinarri izango dituen garapeneredu justuagorantz abiatu nahi dugu.

Gure printzipio eta baloreak

- **Ezker eraldatzaile, eraginkorra eta azkarra.** Egunerokotasunean herritarroiei erantzun erreal eta praktikoak emateko. Irtenbideak eskainiz, hori baita herritarrok nahi duguna, ditugun arazoei irtenbideak emateko gai izango den benetako politikagintza.
- **Edukietan oinarritutako elkarlana.** Desberdinekin adosteko gai izango dena. Ezkerraren ikuspegitik, edukietan oinarrituta, elkarrekin hitzartzera iritsiko dena, planteamenduaren egilea begiratu gabe, betiere desberdinen artean adosteko zirikituak aurkitzeko gai izanik.
- **Aniztasuna oinarri eta helburu.** Urretxu eta Zumarraga anitzak direlako. XXI. mendeko abertzaletasuna aniztasunetik ulertu behar dugu. Euskal Herri independentea, irekia, beste herriekiko solidarioa eta herritarren atxikimendu librean oinarritutakoa nahi dugu. Gaur egungo eta etorkizuneko abertzaletasun erakargarria eraikiz.

- **Tinkotasuna eta malgutasuna.** Pertsona askez osatua. Pentsamendu bakarra baztertuz eta gizarte-mugimenduetan abangoardia oro ekidinez. Elkartasuna, errespetua, malgutasuna, eta tinkotasun ideologikoa balore izanik.
- **Euskaraz bizi eta lan egingo dugu.** Euskarari emango diogu lehentasuna gure eguneroko jardunean, beti ere gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan bizi diren herritarren hizkuntza-eskubideak ere bermatuz.

Oinarri horiek zutabe izanik dihardugu lanean eta halaxe jardungo dugu Aralarretik. Umiltasunez, baina tinkotasunez; kritikoak, baina alternatiba zehatzak aurkeztuz; abertzaleak, baina aniztasuna onartuz; lehia eta elkarlana uztartuz; euskararen erabilera praktikan jarritz; konpromisoa eta lana bat eginez; buruarekin eta bihotzarekin.

Herri honek guztion beharra du, salbuespenik gabe!

1. Herritarren zerbitzura egongo den hiri-eredua eta alokairuan oinarritutako etxebizitza-politika ausarta

1.1 Alokairuan eta kudeaketa publikoan oinarrituko den etxebizitza-politika

Aralarren uste dugu lurralde eta hirigintza antolamenduaren ereduak errotikako norabide aldaketa izan behar duela. Indarrean dagoen ereduaren oinarriak irauli behar ditu, lurzoruaren sailkapenaren etengabeko hazkunderako sortua baitago, eta, iraunkortasunerako ezinbesteko esparru gisa, urbanizatuta edo artifizializatuta dagoen lurzoruaren hazkundera geldiaraztea ezarri behar du. Edo, gutxienez, ondoren urbanizatua izateko sailkatuta dagoen lurzoruaren hazkundera geldiarazi behar du.

Urbanizagarri moduan sailkatutako lurzoru guztiari balio handiegia eman zaio artifizialki. Gure proposamena litzateke landa-lurzoruak urbanizagarri bihurtzeko edozein asmo alde batera uztea, eta hirigintzako garapen guztiari norabide berria ematea, dauden hiri egiturak, sarri degradatuta edo ahaztuta daudenak, leheneratzera eta berritzera bideratzeko.

Hirigintzako planek gure herri eta hirietarako duten garrantzia nabarmendu behar dugu eta herritarrei ulertarazi behar diegu, plan horiek etorkizuneko herri eta hirien izaera bera baldintzatzen baitute. Herri orekatuagoak eta bizigarriagoak izatearen alde egin behar dugu, herritarrentzako eta bizitzeko herriak egin behar ditugu. Horrenbestez, hirigintzako plangintzak gauzatu behar dira aintzat hartuta gizarte bizitza, eta espazio

publikoa aldarrikatuta eta bultzatuta. Hori dela-eta, hirigintzako plangintzak diseinatzean herritarrek parte hartzea aurreikusi behar da.

Inolako zalantzarik gabe, iraunkortasunaren ikuspegia txertatu behar dugu hirigintzaren garapenean, gizarte, ekonomia eta ingurumen iraunkortasuna, hori baita gure herriak bizigarriagoak egiteko modu bakarra.

Plangintzak egiteko unean, nahitaez hausnarketa hauek egin behar ditugu: herria eratzeko zein eredu nahi dugu? Norantz joan nahi dugu? Zenbat hazi behar du herriak? Eta, batik bat, zein etorkizun utzi nahi dugu? Lurzoruaren gehiegizko artifizializazioa saihestu behar dugu, eta espazio libreak eta berdeguneak sustatu behar ditugu.

Gure politiketan, hauek izango dira lehentasunezko neurriak:

- Urretxu-Zumarragako herri-guneak eta alde zaharrak berreskuratu; izan ere, arkitekturaren eta historiaren aldetik duten balioa eta iraunkortasun printzipioak kontuan hartuta, berriak eraikitzea baino askoz ere eraginkorragoa baita.
- Gazteria herrigune historikoetara erakartzeko politikak bultzatu.
- Oinezkoentzako espazioak areagotu.
- Garatzen diren lurzoruetan herri lurzoru asko egotea lortu.
- Herrien barne loturak eta barne garapena orekatua izatea lortu. Bizitzeko toki izan behar dute herriek.
- Instalazio publikoen, ekipamenduen eta berdeguneen zentralitatea eta kokapena zaindu, etxebizitza sozialen, saltokien eta industrialdeen kokapena zaintzearekin batera. Herritarren premien arabera diseinatu behar dira komunikabideak eta garraio sistemen kokalekua.
- Energia aurrezteko neurriak hartu: kaleko argiteria murriztu, ura gutxiago eta egokiago kontsumitu (araztutako ura ez erabili kale garbiketarako ezta lorategiak ureztatzeko ere), garraio publikoa lehenetsi eta dagoena egokitu (autobusa geriatikoraino eraman) eta bizikleta erabiltzea eta oinez ibiltzea sustatu...
- Autonomia pertsonal txikiagoa duten pertsonentzat diseinatuta dauden herriak lortu: elbarriak, haurrak, zaharrak eta emakumeak.
- Hutsik dauden etxebizitzak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bidez zigortu.
- Hutsik dauden etxebizitzak erregistro bat sortu eta eguneratuta izatea.
- Eraikuntza alternatiboko eta propietate komunitarioko kooperatibak sortzen lagundu. Promozio pilotu batekin hasi beharko litzateke, hasierako esperientzi horretatik ikasi eta eredu Urretxu-Zumarragako ezaugarri propioetara moldatzeko.

Egungo gizarteak duen arazo nagusietako bat etxebizitza eskuratzearekin lotuta dago, eta, era berean, herritarren kezken iturri nagusia da. Espekulazioak eta prezio garestiek

herriar asko eta asko uzten dituzte etxebizitza izateko aukerarik gabe. Egoera horri aurre egiteko helburuarekin, hauek proposatzen ditugu:

- Plangintzetan lehentasuna ematea alokairuko etxebizitza sozialei. Eraikitzen denaren % 80 babes ofizialekoa izan dadila.
- Etxebizitza sozial guztiak alokairukoak izatea, eta alokairu horiek izatea bizikidetzaren unitate bakoitzaren errentaren arabera.
- Etxebizitza sozialetarako dauden eskatzaileen zerrendak koordinatzea administrazio guztien artean.
- Etxebizitza zaharrak eta eraikin zaharrak, oro har, berritzeko diru laguntzak ematea.
- Eraikinen etxabeak eta lokalak etxebizitza bihurtzeko prozesua arautzea, espekulazioa saihesteko duen udal ordenantza baten bidez.
- Herriarren benetako premiak aztertzea.

1.2 Pertsona ardatza izatea herrion diseinuan eta herri integratzaileak izatea

Aberastasunaren birbanaketa soziala alde batera utzita, ekonomia eta finantza interesei lehentasuna ematen dien hiri proiektua garatzen du egungo hiri-ereduak; inolako planteamendurik gabeko sekula santan amaitzen ez den urbanizatzeak eta kaltetuta pertsona anitz bazter uzten duen zentzurik gabeko hazkunde anker eta basatiak jabetza kolektiboko espazioak desagerrarazi nahi dituzte, eta, hain zuzen ere, espazio horietan dira hiria herriarren bizikidetzarako espazio moduan definitzen dutenak.

Lurraldearen eredu asezin horri aurre egin nahian, Aralarrek hirien bilakaeraren erabateko norabide aldaketaren alde egiten du: hiriak multzo konplexu gisa berreskuratu behar dira, askatasun, elkartasun eta erantzukizun ekologikoko proiektu gisa.

Pertsonentzako hiriaren eredu ezarri nahi dugu, erantzunkidetasuna eta jasagarritasuna oinarri hartuta, pertsona horien bizi-kalitatea, askatasuna eta eskubideak gauzatu ahal izatea bermatuko duena.

Aralarrek modu integralean ulertzen du hiria. Bizitza soziala egiten den esparrua da hiria, pertsonen arteko bizikidetzaren sortzen da bertan. Hori dela-eta, gizarte orekatuaren alde egiten dugu, bizitza sozialerako planifikatua, guztion artean, guztion parte-hartzearekin diseinatua, eta gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren jasagarritasuna-irizpideak ardatz izango dituenak.

Ezinbestekoa da hiria bere osotasunean tratatzea, herriarrentzako bizimodu hobeko bidea emango duen espazioa aldatzeko edo sortzeko ikuspegiarekin. Hiri bizigarriagoak,

gizatiarragoak, integratzaileak, bizikidetzan lagundu eta gizarteratzeari bidea emango diotenak lortzen lagundu nahi dugu.

Hirigintzako plangintzan, hiriaren diseinuan, ondoan ditugun udalerriei eragin diezaieketen aldeak hartu behar dira kontuan, batetik, eta, bestetik, elkartasun handiagoa agertuko duen mundu garbiagoa eta bizitzeko egokiagoa sortzen lagunduko dutenak.

Herri integratzaileak

Bizitzeko egokia, bazterketarik gabea, pertsonentzako eta pertsona guztientzako izango den hiria posible izateaz gain, mundua eraldatzeko gelditzen zaigun aukera bakarra ere bada. Eraldatze hori behetik, auzoetatik baino ezin da lortu, hau da, behetik gora.

Hauen alde egiten dugu:

- Haurren hiria. Botoa emateko eskubiderik ez badute ere, haiek gogoan hartuta zehaztu behar dira hirien eredu berriak. Hiriak segurua izan behar du, ikastetxeetara, aisialdiko tokietara, bakarrik joan daitezen bidea eman behar du. Horretarako, hiri egitura solidarioa zehaztu behar da, pertsonak ardatz hartzen dituenak, eta ez auto pribatua, eta lortu behar da pertsona helduek adingabeei "lagun egitea". Horrez gain, proposatzen dugu parkeak eta plazak haurrentzat pentsatzeaz gain, haurrekin ere pentsatu behar direla.
- Pertsona zaharren hiria. Mugikortasun murriztua aintzat hartu behar du, eta haien esperientzia eta kultura eskarmentua baliatu behar du, gainerako herritarrekin elkartasunezkoa den elementu moduan.
- Ahalmen urriko pertsonentzako hiria. Espaloi zabalak, oztoporik gabekoak, espaloi mailan dauden oinezkoentzako igarobideak, iristeko errazak diren berdeguneak. Azken batean, pertsona mota guztiak gogoan izanda pentsatutako hiriak nahi ditugu, eta ez ibilgailuen zirkulazioari abantaila ematen diotenak.
- Hiri hezitzailea, onuragarria eta solidarioa.

Herri-eredu jasangarria

Gizarteari dagokionez eredu jasangarria ezarri ahal izateko, nahitaezkoa da esku-hartze publikoa, hirigintzaren plangintzan, honako hauetan, hain zuzen:

- Bertikalean eraikitzearen aldeko apustua egin behar da, etxebizitza kolektiboen blokearen aldekoa, gizartearen eta ekologiaren aldetik, eredu jasangarriena baita.
- Lurzoruak erreserbatzea ezinbestekoa da, heziketa, osasun, gizarte eta kultura arloko ekipamenduak eta berdeguneak etorkizunean kokatzeko beharrezkoak direlako.

Kalitate handieneko inguruetan jarri behar dira eta udalerrietan dauden auzoetan zehar banatu behar dira modu orekatuan. Plangintzak egiteko ahalmenari esker arestian aipatutako zerbitzuak hiri inguruetan eta premia handiena duten tokietan hobetuko ditugu.

- "Generoa eta hiria" : herritarrak, emakumezkoak eta gizonezkoak, elkarrekin egoteko tokia da hiria, harremanak, jolasak eta trukeak bultzatzeko lekua, baina... Emakumezkoen jokaera edo behar espezifikoak kontuan hartuta eraiki behar ditugu hiriak.

1.3 Oinezkoak, ibilgailu ez-kutsakorrak eta garraio publiko lehiakorra oinarri izango dituen mugikortasun-eredua

Garraioarena gure arazo nagusietako bat da; izan ere, ibilgailu partikularren erabilera ikaragarria izateaz bat, ibilgailu partikularra erabiltzera bultzatzen duten politikari lehenetsia eman zaie. Guk, ordea, Urretxu-Zumarragan zehar ibiltzeko oinezkoak lehenetsiko ditugu, automobilaren kaltetan.

Garraio publikoa bultzatuko dugu, baina ez edozein garraio publiko, arina eta ekonomikoa, bestela ez dago inolaz ere kotxe pribatuekin lehiatzerik.

Horretarako, baina, Urretxu-Zumarragak euren mugikortasun plana izan behar dute, hobe bakarra, eta plana bete eta betearazteaz arduratu. Hori lortzeko, honako hauek proposatzen ditugu:

- Kalitateko garraio publikoko sistema ezartzea. Sistema hori inguruko herri eta eskualdeekin lotuta egongo da. Horrez gain, lurraldeko, lurralde arteko eta burdinbideko garraio publikoaren sistema indartu behar da.
- Kutsatzen ez duten garraiobideak erabiltzea sustatuko da; bereziki, oinez ibiltzea eta bizikleta erabiltzea. Ondorioz, horietarako beharrezkoak diren azpiegiturak bultzatu behar dira: oinezkoentzako gunek, pasealekuak, bizikletak ibiltzeko bideak, bizikletak uzteko tokiak...
- Herrigune eta hiriguneetan oinez eta bizikletaz ibiltzea sustatzeko kanpainak jarri behar dira abian.
- Autobuseko abonua soziala sortu behar da, errentan oinarritua eta diru sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak dituzten pertsonak kontuan hartuta.
- Udalarenak diren ibilgailuak modernizatzen saiatu behar da, 0 (zero) igorpeneko helburua lortzen joateko. Hartara, ibilgailu hibridoak eta igorpen kuota baxukoak lehenetsiko dira.

Dena den, garraio publikoaren erabilera indartzea osatzeko beste neurri batzuk hartu behar dira, hala nola txartel bakarria inplementatzea edo abiaraztea, hilerokoak eta urterokoak diren garraio publikoko txartelak bultzatzea, garraio publikoko intermodalen aldeko apustua egitea, eta sustatze eta kudeaketa publikoko lur azpiko disuasio aparkalekuen alde egitea.

2. Gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratu zerbitzuen kalitatea handitu eta bazterketa sozial oro desagerraraziz

2.1 “Urretxu eta Zumarragako Gizarte Eskubideen Karta” sortu eta gizarte-zerbitzuen kudeaketa publikoa lehenetsi

Gure herrietan desberdintasunak ahalik eta gehiena murrizteko, eta herri kohesionatu eta orekatuaren eredua bultzatzeko, aukera berdintasunaren eta gizarte orekaren bermea izan behar dute zerbitzu publikoek. Krisiaren ondorioz, herritarren zati baten egoera are izugarriagoa da, eta, ondorio moduan, geroz eta herritar gehiago dira gizartetik baztertuta eta pobrezia egoeran daudenak. Udalak behar horiei erantzuteko gauza izan behar du, oinarritzko azpiegiturak eta zerbitzuak bermatuta. Helburu horretarako, proposatzen dugu udal bakoitzak bere “Urretxu eta Zumarragako Gizarte Eskubideen Karta” izatea, hartara, karta horretan bilduko dira herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak eta horiek erabiltzeko bete behar dituzten baldintzak.

Lehen mailako gizarte arreta

- Lehen mailako gizarte arretako zerbitzuak bermatzea, beharrezkoak diren langile guztiak lanean jarrita.
- Gizarte zerbitzuak emateko zentro guztietan hainbat arlotako kideek osatutako lan taldeak egotea: gizarte langileak, psikologoak, hezitzaileak...
- Gainerako administrazioetako gizarte zerbitzuekin koordinazioa izatea bultzatzea, eta zerbitzu ezberdinen informazio praktikoa helaraztea herritarrei.
- Gutxienez, gizarte langile bat egotea lortzea 5.000 biztanleko. Gizarte langileen ratioa hobetu, etorkizuneko beharrak aurreikusiz.
- Gizarte-hezitzaile eta familiarren bidez arreta programak bultzatu.

Gizarte larrialdiak

- Gizarte larrialdietako zerbitzuekin koordinazioa indartzea eta laguntzak abian jartzea.
- Legeak ezarrita duena betetzeko, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, etxegabeentzako ostatua eta jantoki soziala egotea bermatzea Urretxu, Zumarraga eta Legazpin.
- Arloen arteko zeharkakotasuna indartzea, hartara, gizarte larrialdiei erantzun ahal izateko.
- Laguntzen esleipenen balorazioa egin, eta betebeharreko irizpideak eguneratu

Adineko pertsonak

- Adineko pertsonentzako egoitzak, eguneko zentroak eta elkarteak egotea bermatzea.
- Gizarte zerbitzuen eta Osakidetzaren arteko koordinazioa indartzea.
- Oroimena eta, oro har, burua lantzeko eta trebatzeko lantegiak antolatzea.
- Informazio zentroak ezartzea pertsona zaharrentzat.
- Pertsona zaharren premiak aintzat hartzea, etxebizitza politikak diseinatzean eta gauzatzean.
- Beren sexu joera gorabehera, berdintasuna oinarri hartzen duen moduan tratatzea pertsona guztiak, zaharrentzako egoitzetan eta erretirodunen elkarteetan.
- Jubilatu eta pentsionisten elkarteekin lan egitea, eta horiek ezartzea parte-hartze maila eta autogestio eredua, herritar horientzako aisialdi programak urtero egitean, baztertzailak izan gabe gainerako herritarrentzat.
- Eskailera mekaniko, garraio publiko edo anbulantzia bidez mugikortasuna erraztu, beharrezko ikusten diren kasuetarako (ospitalea, geriatrikoa, anbulatorioa, Eguneko Zentroak, herrigunetik urrun dauden auzuneak...)

Haurrak eta nerabeak

- Neska-mutikoen parte-hartzea bermatzea eragiten dieten arloetan.
- Haurren eskubideak bermatzeko estrategia eta agenda zehatza eta jakina garatzea.
- Haurren pobrezari aurre egin ahal izateko, babes neurriak ezartzea.
- Arreta eta dinamizazio programak aurrera eraman kaleko hezitzaileen bidez.

Immigrazioa

- Etorkinek herriaren bizimoduan parte hartzea bultzatzeko politika garatzea.
- Euskara ikasteko ikastaroak erraztea etorkinei, "Aisa" metodoaren bidez, lehenbiziko pausoa emateko euskalduntzean.

- Laguntza eta aholkularitza emateko bulego bat sortzea, lana eskatu eta eskaintzeko, etxebizitza duina lortu ahal izateko... Hori guztia Laguntza eta aholkularitza integrala bermatzea, haien eskubideak eta gainerako herritarrenak parekatuz.

Desberdintasun funtzionalak dituzten pertsonak

- Iristeko erraztasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea: igogailuak jartzea, espaloiak jaistea, udal eraikinak egokitzea...
- Oinarritzko seinaleak eta informazioa braille hizkuntzan eduki ahal izateko beharrezkoak diren akordioak egitea. Eta informazio hori euskaraz egon dadila bermatzea.
- Elkarrekin eta erakundeekin lankidetzan jardutea: buruko gaixotasunak dituzten pertsonen elkarrekin eta erakundeak, mendeko pertsonenak, beste ezintasun batzuk dituztenenak...
- Enplegu publikora heldu ahal izatea bermatzea.

Mendekotasunak

- Arreta plana garatzea, herriko mendekotasunari aurre egin ahal izateko.

Gizarte ekintzaren arloa gehiago garatzea, aurrez aurre dugun errealitatea, oso desberdinak diren administrazioen oinarriaren gainean, ezarritako sistema batean koordinatutako jarduketan zailtasuna da (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak), gizarte zerbitzuen kudeaketa eta hornikuntzari dagokionez, prozeduren homogeneotasunari eta abarri dagokionez, arretaren kontinuuma bermatzeko bidea emanik. Erakundeen zatiketa eta modu osagarrian lan egiteko zailtasunak, baita alderdi berberetako gobernatutako erakundeen artean ere, gizarte ekintza integral eta zeharkako bat lortzeko politika egokia garatzeko oztopo handietako bat da. Hain zuzen, erakundeetatik zuzendu behar da hori, eta bereziki udaletatik, herritarrengandik gertuen daudenak baitira, eta Aralarrek norabide horretan lan egiteko konpromisoa hartzen du.

Arretan koherentzia eta jarraitutasuna bermatu behar dugu, egun erakundeetan dagoen zatiketa gorabehera, kudeaketa komunezko gizarte zerbitzuen sare publiko baten norabidean, beste sare batzuk bezala (osasun arloa, heziketa) udala izanik, gizarte interbentzioaren agente aktiboa, eta ez gaitasunik gabeko eskaeraren jasotzailea hutsa.

Prebentzio eta arreta programak sustatu, esku-hartzean parte hartzen duten alorren koordinazioan sakonduz (Hezitzaileak, Gizarte Zerbitzuak, Osakidetza).

Gizarte zerbitzuak pribatizatzeari EZ!

Gizarte zerbitzuak, heziketarekin eta osasun arloarekin batera, eta etxebizitza duin bat gozatzeko eskubidea bezala, elkartasunezko eta berdintasunezko gizarte eraikitzeke funtsezko zutabeak dira. Eta zutabe horiek kudeatzea administrazio publikoaren erantzukizuna da.

Onartezina da pribatizatzearen alde egiten ari diren apustua, bai heziketan, bai eta osasun arloan ere, Osakidetzan. Eta are onartezinagoa da, oraindik, gizarte zerbitzuen lege bat onartzea. Herrialde honetako ezkerreko sektore batzuek iraultzaile moduan saldu nahi dute lege hori, baina gizarte zerbitzuen kudeaketa, esku publikoetan egon beharrenean, enpresa pribatu batzuen esku egoteko aukerari atea zabal-zabal uzten diote, izan ere, enpresa pribatu horiek etxez etxeko laguntza zerbitzuan, egoitzetan eta beste gizarte zerbitzu batzuetan ustiatu beharreko merkatu nitxoa aurkitu baitute. Aralarrek sendo egingo du kudeaketa publiko zuzenaren alde, irabazteko asmorik ez duten enpresa pribatuekin erakundeekin koordinatua eta partaidetua. Aldarrikatzen dugu gizarte zerbitzu publikoak ez direla ez lehen baliabidea, ez eta azkena ere, eta soil-soilik izango dute zentzua denontzako gizarte babesa blindatzen duen gizarte solidario batean, kudeaketa publiko zuzenaren nagusitasunetik.

2.2. Hiri onuragarriak: osasuna, oinarrizko eskubide gisa

Kontaminazioa

Urretxu eta Zumarraga Euskadiko herri kutsatuenak dira, egoeraren balorazio erreala egin behar da. Hartu beharreko neurriak hartu eta gainerako administrazioei eurei dagozkienak hartzeko exijitu (INMA proiektua).

Udalerrriak gure bizimodua eta osasun egoera baldintzatzen duten jarduerak egiten diren bizikidetzako toki diren neurrian, toki egokiak dira gure herritarren osasunaren eta bizimoduaren maila hobetzeko politika publikoan jarduketak abian jartzeko eta garatzeko.

Maila sozioekonomikoa, genero desberdintasunak, ingurumen ingurunea, bizi- eta lan-baldintzak, bizitzeko estiloak eta osasun arreta herritarren osasuna erabakitzen duten faktoreetako batzuk direnez, horietan jardun beharko da, modu integralean eta zeharkako politikekin. Gainera, gure herritarren parte-hartzea bultzatu beharko dugu, arazoak hobeto identifikatzeko eta arrakasta izateko bermeekin heltzeko ezinbesteko elementua izango baita.

Herritarrek osasun arloan dituzten premien bozeramaile izan behar du udalak OSAKIDETZAren aurrean, udal bakoitzak osasun azpiegitura nahikoak izateko helburuarekin.

Osasun arloko autonomia administrazioaren aurrean aldarrikatu behar ditugu oinarritzko egitura eta zerbitzu hauek herritarrentzat.

Gizarte zerbitzuen garrantziaren gaineko inportantziari buruzko kontzientzia handitzen ari da, ematen dituzten zerbitzuen, jardueren, programen, proiektuen... gaineko inportantziari buruzkoa. Gainerako administrazioekin eta erakundeekin koordinatuta, udalek bermatzen dituzten hainbat zerbitzu izateko premia geroz eta gehiago sentitzen dugu:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- Egoitza zerbitzuak.
- Mendekotasun, ahalmen urritasun edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak zaintzen dituzten pertsoneri eta familiei laguntzeko zerbitzuak.
- Esku-hartze sozioedukatiboko programak.
- Esku-hartzeko komunitarioko programak.
- Gizarte bitartekaritzako zerbitzuak.
- Eguneko zentroak.
- Informazio eta orientazio soziala emateko zentroak eta zerbitzuak.
- Gizartean eta lanaren arloan sartzen laguntzeko zentroak eta zerbitzuak.
- Gizarte bazterketari eta diskriminazioari aurrea hartzeko programak.
- Gizartearen parte hartzea bultzatzeko programak.

Hori guztia aintzat hartuta, badirudi nabarmena dela gizarte zerbitzuen sistema publikoa behar dela eta horrek, gainera, zentrala izan behar duela. Eskubide subjektibo perfektu moduan konfiguratuta dauden gizarte zerbitzu batzuek ari gara, eta, beraz, botere publikoentzat betebeharrak moduan, edozein kasutan, eta inolako aitzakiarik gabe. Egiazki unibertsalak diren gizarte zerbitzuek ari gara, herritar guztiek beretzat hartzen eta bere gisa sentitzen dituztenak.

Gizarte zerbitzuak administrazio erantzukizun desberdinetan antolatzeak arazoak ekar diezazkieke herritarrei. Sistema bakar bat sendotu behar da, jarrera bakar bat, nortasun bat, irudi bat, homogeneotasun bat eskubideetan eta betebeharretan. Nahitaezkoa da erantzukizun publikoen gobernu bakar baten organoak eta tresnak sortzea.

Ondorio moduan, guztiz beharrezkoak dira jarraian zerrendatuta dauden ekintzak, lehenago deskribatu diren helburu guztiak lortu ahal izateko:

- Udalak indartu behar dira, eta beren eskumenak eta beste administrazio publiko batzuekin partekatu behar dituztenak argitu behar dira. Hori guztia, subsidiariorotasunaren eta askitasun ekonomikoaren printzipioa oinarri hartuta.
- Udalerriak taldetan biltzea lagundu behar da, mankomunitateen bidez, herri txikietan, kontzejuetan eta abarretan berme handiagoko gizarte zerbitzuak eman ahal izateko herri guztietan.

- Herritarrak eta familiak arretaren, gizarte kohesioaren eta plangintza integralaren ardatz gisa hartu behar dira. Ezkerraren ustez, Aralarren ustez, familiak garrantzitsuak dira, ez dira eskuinaren gai eksklusiboa. Izan ere, eskuinak ez du defendatzen familia tradizionala, baizik eta familiaren ikuspegi tradizionalena. Familiei laguntzeko ezkerreko politikak eta eskuineko politikak daude. Aralarren asmoa ez da familiak sendotzea -emakumeek tradizioz familian izan duten eginkizuna-, norbanakoaren euskarri bihurtzeko (pertsone zaharrak, ahalmen urrikoak, gazteak..., "Mediterraneoko eredu" izenekoa, gizarte politiken kaltean, kolektibo horien herritartasun eskubideen kaltean).
- Emakume, zahar, ahalmen urriko, immigrante eta gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden taldeak ardatz dituzten politika integral global eta espezializatuak indartu behar dira.
- Sektorekako arloak eta parte-hartzeak bultzatutakoak ezarri behar dira, talde espezifikoek (gazteak, emakumeak, zaharrak...) edo gaikako (heziketa, ingurumena, gizarte ongizatea, lana, osasuna...) kontseiluen inguruan egituratutako sektorekako parte-hartze orekatua bermatu ahal izateko.

2.3 Pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurkako borroka

Herritarrak babesten dituzten gizarte zerbitzuak defendatzen ditugu eta, bereziki, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan daudenak, oinarritzko premiak estaltzearen gainetik bizi-kalitatea bultzatzen dutenak, eta gizarte sistema honek eragiten dituen desberdintasun egoerak eta dituen erroak kritikoki salatzen dituztenak.

Ez dugu onartzen, eta ezin dugu egin, pobrezia eta gizarte bazterketa ezin saihestu daitekeenik. gaiztat hartzea. Egun, bizi-baldintzak kaskartzearen emaitza da, segurtasunik ezera eta ahultasunera bultzatzen baitituzte herritar segmentu garrantzitsuak gizarte dual batean. Egun, pobrezia eta gizarte bazterketak ezaugarri berriak dituzte, emakume ezaugarriak, partekatuta ez dauden familia zamak dituzten emakumeenak. Iraupen luzeko langabeziarekin eta langabeziaren babes eskasarekin lotutako ezaugarriak ditu, izan ere, azkenean gizartearen babesa ez da nahikoa eta pobrezia bultzatzen du, gizartearen eta administrazioen laguntzarik ez duen pobrezia, pobrezia latz eta osora. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen ezaugarriak ditu, talde horretan sartzen diren herritar berrienak, immigrazioko sektoreenak, pentsio minimoak dituzten zaharren sektoreenak...

Testuinguru honetan, eta erakundeen arteko planteamendu batetik eta, bereziki, udaletan, herritarrengandik gertuen erakunde direnez eta arretaren ikuspegi komunitarioa izan behar dutenez, hauek proposatzen ditugu:

- Erakundeetako maila desberdinen arteko koordinazioa hobetu behar da, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren barnean.

- Erantzukizun publikoa mugatu eta gauzatu behar da gizarte zerbitzuetan, ekimen pribatuarekin lotuta dagoen anbiguotasuna alde batera utzita.
- Pertsonen eguneroko bizimodua eta ohiko ingurunean egotea errazteko moduan egituratu behar dira gizarte zerbitzuak.
- Gizarte zerbitzuetan egiten den gastua handitu behar da, inguruan ditugun herrialde aurreratuenetakoekin parekatzea lortu arte.
- Gizartean esku hartzen duten gizarte mugimenduen eta gobernuz kanpoko erakundeen gizarte ekimen solidarioa sustatu eta lagundu behar da.
- Funtsezko eran hobetu behar da udaletako gizarte zerbitzuak giza baliabideez, materialez eta teknikoez hornitzea.
- Familiaren eta komunitatearen egitura laguntzera geroz eta gehiago bideratuta dauden gizarte zerbitzuak eratu behar dira, bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea bultzatuta, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, enplegua sortzea eta tokiko garapena.
- Lan-bizitzaren eta lan-baldintzen kalitatea hobetu behar da gizarte zerbitzuetan, eta, batez ere, zeharka kudeatzen direnetan.

2.4 Erretirodunak eta pentsiodunen parte hartze aktiboa bultzatu

Garaiak aldatu egin dira. Duela 30 edo 40 urte, zaharren kolektiboa egiazki homogeneoa zen. Babestu beharreko pertsonen errealitatea eta irudi soziala zuten. Kolektibo hori ez zen hartzen, egun ez bezala, gizarteari egiten zizkioten ekarpenen arabera, pertsona zahar aktibo eta osasuntsu moduan, familiei, boluntario moduan... laguntzen zuten pertsona moduan. Azken batean, bizitza gozatzeko jarraitzen duten pertsonak dira, erretiro aktiboa eta osasungarria nahi dutenak.

Aralarrek zeharkako politika proposatzen du, eremu ezberdinetatik talde honi zuzendua:

- Pertsona zaharrei arreta emateko, udalek plan integralak sortzea.

Familiaren inguruan mantentzea

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- Telelaguntza.
- Eguneko laguntza arreta (eguneko zentroak).
- Zaharrak zaintzen dituzten familiei laguntza ematea: atsedeen hartzeko programa.
- Beste laguntza batzuk: laguntzak, pentsioak, tasak murriztea, laguntza pertsonala, etxebizitzak egokitzea, eta abar.

Ostatu-hartze alternatiboa eta arreta espezializatua

- Etxebizitzak eta egoitzak.
- Osasun edo familia premiak direla-eta, aldi baterako egoitza arreta ematea.

Parte-hartze soziala eta animazio soziokulturala, Aisia eta Sensibilizazioa

- Beren premiak aztertzen dituzten eta kolektibo honekin lotutako erabaki politikoak, sozialak eta kulturalak hartzen dituzten erakunde publiko eta pribatu guztietan ordezkatura egotea bermatzea. Zaharren kontseiluak sortu behar dira tokian bertan, erakundeen eta administrazioaren arteko ordezkariak eta solasaldi organo gisa. Kontseilu horiek organo independenteak izan daitezkeen egin behar da, eta beren erabakiak bete beharrekoak izan daitezkeen.
- Parte-hartze soziala eta asoziazionismoa: elkarteak sortzea eta garatzea, belaunaldien arteko topaketak, boluntariora. Elkarteak bultzatu behar dira, interes publikokotzat jota, eta jarduerak bultzatuta eta diruz lagunduta.
- Prebentzioa, gizarteratzea, integrazioa eta babesak.
- Kirol, jolas eta kultur jarduerak.
- Kolektibo honentzat gomendagarriena den gorputz ariketari buruzko dibulgazio kanpainak egitea bultzatzea.
- Turismo soziala eta kulturala: udan, kultur bisitak, txangoak eta bidaiak.
- Zentro soziokulturalak edo zaharren etxeak eta elkarteak dinamizatzea.
- Belaunaldien arteko elkarriketak, elkar-ulertzea eta elkartasuna garatzea, zahartzeari hobeki aurre egin ahal izateko eta merezi duten errespetua eta duintasuna berreskuratzeko. Belaunaldiak elkarrekin egoteko eta bizitzeko guneak sortu behar dira.

Haien eskubideak bultzatzea eta defendatzea

- Pertsona zaharren sektorekako kontseilua.
- Parte-hartze mahaiak.

Kolektibo honi zuzendutako politikak zeharkakoa izan behar du eta hainbat arlotan garatu behar da:

Aisian, gizarte parte-hartzean eta sentsibilizazioan

- Asoziazionismoa bultzatzea. Elkarteak bultzatu behar dira, interes publikokotzat jota, eta jarduerak bultzatuta eta diruz lagunduta.
- Integrazioa, parte-hartzea eta kultura.
- Beren premiak aztertzen dituzten eta kolektibo honekin lotutako erabaki politikoak, sozialak eta kulturalak hartzen dituzten erakunde publiko eta pribatu guztietan ordezkatura egotea bermatzea. Zaharren kontseiluak sortu behar dira tokian bertan,

erakundeen eta administrazioaren arteko ordezkaritza eta solasaldi organo gisa. Kontseilu horiek organo independenteak izan daitezen egin behar da, eta beren erabakiak bete beharrekoak izan daitezen.

- Kolektibo honentzat gomendagarriena den gorputz ariketari buruzko dibulgazio kanpainak egitea bultzatzea.
- Belaunaldien arteko elkarrizketak, elkar-ulertzea eta elkartasuna garatzea, zahartzeari hobeki aurre egin ahal izateko eta merezi duten errespetua eta duintasuna berreskuratzeko. Belaunaldiak elkarrekin egoteko eta bizitzeko guneak sortu behar dira.

2.5 Ahalmen urritasunak dituzten pertsona komunitatean integratu eta autonomia sustatu

Ahalmen urritasunak dituzten pertsonak hobetzen ari dira gizartean duten tokia eta, gainerako herritarrekin alderatuta, berdintasun maila handiagoak eskuratzen ari direla, puntu batzuetan sakontzea komenigarria da: Lana lortzeko eta horri eusteko politikak; iristeko erraztasuna bultzatzeko eta oztopoak ezabatzeko politikak (oztopo fisikoak, sentsozialak...) eraikinetan, hiri ingurunean, garraioetan eta komunikazioetan; etxebizitza egokituak bultzatzeko politikak, osasun arreta espezializatua ematekoak, ahalmen urritasunaren arabera gastuak berdintzekoak, zergekin lotutakoak...

Komunitatean integratzea eta bizimodu autonomoa

- Gizarte zerbitzuen gaian, UDAL PLAN INTEGRALAK egitea proposatzen dugu, ahalmen urritasunen bat duten pertsonen independentziari eta protagonismoari mesede egiteko.
- BURU NAHASMENDU KRONIKOAK DITUZTEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO PLANAK egitea proposatzen dugu, gaitze eta birgaitze psikosoziala aintzat hartzen dutenak, bai eta etxebizitzarekin, lanarekin, osasunarekin eta laguntza ekonomikoekin lotutako alderdiak ere.
- Ostatu hartzea: egoitza zentroetan, lanbide zentroetan eta eguneko zentroetan plaza nahikoak sortu behar dira. Funts publikoen bidez finantzaturako eta gobernuz kanpoko erakundeek kudeatutako plazak sare publikotzat hartu beharko dira, eta horien arreta irizpideek, ratioek, programek eta abarrek homologatuta egon beharko dute eta zerbitzua ematearekin koherentea den prezioa izan beharko dute.
- Gaitzea eta birgaitzea, aisia eta denbora libre: plaza nahikoak sortu behar dira birgaitzeko eta aisiarekin eta denbora librearekin lotutako programetarako.
- Familiei laguntza ematea: atsedeen hartzeko programak, prestakuntza hartzekoak...

Arlo ekonomikoan parte hartzea eta integratzea

- Baliabide ekonomikoak lortzea bizimodu duina bermatzeko: kotizazio gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak, elbarriak gizarteratzeko laguntzak eta beste pentsio batzuk.
- Lanaren arloko integrazioa.
- Gizarte zerbitzuei laguntza teknikoa ematea, langile-lanpostu profilekin eta bateragarritasunarekin lotuta. Ahalmen urritasunen bat duten langileen emankortasunari aukera emateko gai diren modalitateak garatzea (lana laguntzarekin, laneko zentro bereziak, kokalekuak...).

2.6 Genero-berdintasuna eta sexu-joenen aniztasuna defendatu

Egungo gizartean erroturik dauden eredu patriarkal eta matxistak gainditzeko, herriko berdintasun arloak sustatu eta bultzatu behar ditugu, kontziliazio planak bultzatuz, ereduak sortuz eta emakumeen partaidetza aktiboa gizarteko arlo eta eremu guztietan sustatzeko. Diskriminazio positiboko politikak bultzatuko ditugu. Udalak herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak izaki, bazterkeria pairatzen dutenekiko tratu berezia bultzatu behar dute hauek.

Berdintasuna

- Gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako eta familia eta lana uztartzeko kontziliazio planak idatzi, sustatu eta garatu.
- Udaleko sail guztietan berdintasunerako politikak txertatu.
- Emakumeen independentzia ekonomikoa eta lana sustatzeko politikak bultzatu.
- Genero-indarkeriarekin amaitzeko kontzientziarazioa landu, eta pairatzen dutenak artatzeko bitarteko guztiak jarri, gainerako instituzioekin koordinaturik.
- Emakume eta berdintasun arloko elkarteekin elkarlana garatzea.
- Gizonen inplikazioa gai honetan sustatzea eta lantzea.
- Udal administrazioetik kanpoko pertsonekin eta enprekin sinatutako kontratuetan genero-ikuspegia aintzat hartzea.
- Hirigintza-plangintzetan emakumeen ikuspegia ere lantzea, hauen parte-hartzea bermatuz.
- Adineko eta haurren zainketaz arduratzen direnen atsedenerako guneak sortzea.
- Alfabetatzeko eta laneko prestakuntza jasotzeko programak garatzea.
- Partekatuta ez dauden familia-zamak dituzten emakumei eta baliabide eskasak dituzten indarkeriako biktimei lehentasuna ematea etxebizitza sozialak esleitzeko orduan.

Sexu aniztasuna

Gizarte-informaziorako kanpainak abian jartzea, bai jokabide homofobikoak salatzeke, bai eta errespetuaren eta berdintasunaren aldeko jokabideak bultzatzeko ere.

- Adingabeen babeserako politiken barnean, zenbait neurri zehaztea sexualitatearen adierazpen askatasuna bermatzeko.
- Gayen, lesbianen, bisexualen eta transexualen informaziorako programak sustatzea.
- Erakundeek gay, lesbiana, bisexual eta transexualen nazioarteko eguna ospatzea.
- Udaltzainei eta udaleko arreta zuzena ematen duten beste langileei ere, homofobiaren eta transfobiaren prebentzioari buruzko prestakuntza eskaintzea.
- Abian jartzea edo zabaltzea zerbitzu sexologiko doakoa herritar guztientzat.

2.7 Immigrazioa aukera bat da, ez arazo bat

Aralarrek uste du immigrazioa "aukera" bat dela, ez "arazo" bat.

Berritu berri den Atzerriartasun Legearen guztiz aurka gaude, mugen kontrolean, eskulana legitimatzean eta eskubideen hierarkian oinarrituta baitago, eta horiek herritartasun inklusiboaren kontzeptuaren guztiz aurka baitaude.

Benetan presazkoa da legegintzarekin lotutako alternatiba ausartak aztertzeke premia, gizartearen errealitatea ikusteko, pertsonen berdintasun juridiko eta aukera berdintasunerantz aurrera egiteke bidezkoak direnak. Esparru juridiko berria bilatu behar dugu gizarteratzea sustatzeko; gizarteratze legea, Atzerriartasun Legetik harago joanda.

Eskubide eta betebeharrak berdintasunak ez dakar berekin asimilatzea, egiazko integrazioa baizik. Integrazio edo gizarteratze horrek bi norabidetako izaera izan behar du argi eta garbi, elkarrenganako errespetuan oinarritua, nortasun desberdinen garapenean eskubideak eta betebeharrak partekatuta. Kontua ez da gutxieneke eskubide batzuk "ematea", baizik eta eskubide osoko herritartasuna onartzea, bizilekuaren arabera, eta ez jatorriaren arabera.

Gizarteratzean aurrerapausoak emateke, jakitun izan behar dugu desberdin izateari errespetua izateak duen garrantziaz: jatorrizko kulturei balioa eman eta horiek babestu behar ditugu eta, aldi berean, gureari balioa eman eta babestu behar dugu.

Eskubideen berdintasunaren aldeko borroka honetan ez dugu ahantzi behar generoaren ikuspegia. Emakumearen bazterketa errotik ateratzeko lan egitea ezinbestekoa da, emakumeei oro har zuzenduta dauden berariazko programetan emakume etorkinek sarbide normalizatua

izatea erraztuta. Gainera, arreta berezia jarri behar dugu legez kanpoko egoeran dagoen eta genero indarkeriaren biktima den emakume etorkinarengan, bazterketa bikoitza baita.

Pertsona etorkinen benetako gizarteratzea bermatzeko modu bakarra horien parte-hartzea bultzatzea da. Parte-hartze hori funtsezkoa da, bai politikan, bai gizartearen eraikuntzan, eta bai heziketan ere.

Harrera

Pertsona etorkinei harrera egiteko protokoloak zehaztu eta abian jarri behar dira. Harrera horrek berekin hartu beharko luke hartzen duen gizarteari buruzko informazioa ematea eta ezagutaraztea, hizkuntzak ikastea, gehiegikeriak saihestuko dituen lanbide orientazioa ematea, familia berrelkartzea lortzeko aholkularitza ematea, eta heziketa, osasun, gizarte zerbitzuen eta abarren sistemetara heltzeko behar den informazioa ematea.

Helburu horrekin, aholkularitza emateko bulegoak sortzea proposatzen dugu (harrera bulegoak) tokiko erakundeetan. Hartara, eginkizun hori beteko dute, hainbat arlotako ekintzak koordinatuko dituzte eta, hortaz, leihatilaz leihatila ibili behar izatea saihestuko diete etorkinei eta harrera neurriei koherentzia emango diete.

Hainbat eskubide lortzeko erroldatuta egon behar izaten denez eta, egungo eskakizunen arabera, pertsona askok zailtasunak dituztenez erroldatzeko, eskakizun horiek aldatu egin behar dira, eta, edo erroldatzea malgutu behar da, edo eskubideak izateko bizilekua egiaztatzeko beste modu batzuk ere proposatu behar dira.

Dena den, harrerarekin lotutako ekintzak, etorkinentzat ez ezik, etorkin horiek hartzen dituzten herritarrentzat ere egin behar dira. Sentsibilizazio horrekin batera, etorkinen bizi-baldintzak hobetu behar dira, gizartetik baztertuak gera ez daitezen.

Kontua da "bestearekiko" elkartasunezko eta errespetuzko balioak transmititzea eta desberdina denarekin bizitzen ikastea. Era berean, etorkinak ere sentsibilizatu behar dira gure gizartean oro har.

3. Kalitateko enpleguak sortu tokiko ekonomia berritzailea, ekologikoa eta solidarioa sustatuz

3.1 Kalitateko enplegua sortuko duen plana eta langileen defentsa aktiboa

Testuingurua

Munduko krisi ekonomikoa ez da tokiko krisia, unibertsala baizik, egiturazko krisia, historiaren beste egoera eta garai batzuetan bezala, sistema kapitalistaren oinarrian dauden kontraesan sozial sakonak agerian uzten dituena.

Euskal Herrira ere iritsi da krisi hori. Euskal Herrian izaten ari den eragina ez da zuzena; izan ere, neurri handi batean, Europa eta, hortaz, estatu espainola eta frantsesa izaten ari diren krisi ekonomikoaren eragina baita.

Ekonomiaren arloan burujabetzarik ez izateak, besteak beste, neurri handi batean bi estatu horien errealtate sozioekonomikoaren mende egotea ekartzen du eta, azken batean, Europako testuinguru ekonomiko eta politikotik, bietako bakoitzak krisitik ateratzeko hartzen dituen neurrien mende egotea.

Krisi egoera honen ondorioz, argitara ateratzen ari da botere publikoek ahaztuta edo ezkutatuta zuten errealtate bat: egiazko pobreziaren maila. Pobreziaren tasak bere horretan irauteak oparoaldiko eta hazkunde ekonomikoko hamalau urtean, hamalau urte jarraian, argi uzten du ahula izan dela oparoaldi ekonomikoko garaietan pobreziaren gaiari irtenbidea bilatzeko egin den apustu politikoa. Garai horretan, ez da pobreziaren maila murriztu; are gehiago, estutasunik gabe bizi diren biztanleen, biztanleria osoaren %80, eta pobreziaren mailaren azpitik bizi direnen arteko desberdintasunak, biztanleria osoaren %20, handitu egin dira.

Oparotasun urteak ez dira baliatu Euskal Herriko babes sozialeko mailak Europako beste herrialde batzuetan dituztenekin parekatzeko. Eta orain krisia pagatu behar da, pertsona eta familia askoren sufrimendu moduan.

Irtenbiderik ez dagoela, eta oreka zenbait neurriren kontinuisismoan eta erreformismoan dagoela dioen mezuaren aurrean, Aralarrek, ezkerrek, ezetz esan behar du. Ezkerrek, Aralarrek, altxatu egin behar du eta ezezkoa esan. Horrenbestez, politika egiteko modu berri bat aldarrikatu behar dugu, planteamendu eta errezeta ekonomiko berrietan oinarritua.

Egungo ekonomiaren ereduaren oinarrian hauek guztiak daude: pertsona aberatsenei zergak arintzea, gizarte zerbitzu guztiak pribatizatzea eta ituntzea, gizarte zerbitzuak finantzatzeko moduan koordainketa ezartzea, garraio politika errepideak eta errepideak sortzean oinarritzea, eta goi mailako kultura politika bultzatzea, alde batera utzirik aberastasunaren birbanaketa, krisiak kalte handiena egindakoei urgentziatzeko babes ematea edo ingurumenaren, kalitateko garraio publikoaren edo Bizkaian euskara garatzearen aldeko edozein aztarna.

Urretxu eta Zumarragako diagnostiko sozio-ekonomiko laburra

Krisialdi estrukturala bizi dugu, dimentsio askotako krisialdia: ekonomikoa, finantzarioa, ekologikoa, energetikoa eta soziala.

Urretxu eta Zumarraga ez daude krisialdi honen ondorioetatik kanpo. Gogor jo gaitu, eta tamalez, urteotako hazkunde ekonomikoa ez da baliatu kalitateko enplegu egonkorra sortu, eskualdeko ekonomia dibertsifikatu eta errentaren birbanaketa justuagoa egiteko.

Krisialdiarekin, gure herriotako egoerak are gehiago egin du okerrera eta labor-labor bada ere, hemen dituzue Urretxu eta Zumarragako egoera ekonomikoa ahula azaltzen duten hainbat adierazle ekonomikoa (Iturriak: Eustat eta Lanbide):

- Langabezia eta prekaritatearen gorakada:

Urretxu:

- 2007ko martxoan 176 langabetu zeuden eta 2011 martxoan 400 langabetu daude. Azken lau urteetan %127 hazi da langabetu-kopurua Urretxun, Gipuzkoan aldiz, %83. (Iturria: INEM, 2011ko martxoa)
- Langabezia-tasa Gipuzkoako batez bestekotik gora dago: Urretxun %11,35 eta Gipuzkoan %11,05. (Iturria: Lanbide, 2010eko azken 3 hilabetekoa)
- 2010eko azken hiru hilabeteetan egin diren kontratuen %97 aldi baterakoak izan dira eta mugagabeak %3. (Iturria: Lanbide, 2010eko azken 3 hilabetekoa)

Zumarraga:

- 2007ko martxoan 266 langabetu zeuden eta 2011 martxoan 648 daude. Azken lau urteetan %144an hazi da langabetu-kopurua Zumarragan, Gipuzkoan aldiz %83. (Iturria: INEM 2011ko martxoa)
- Langabezia-tasa Gipuzkoa eta EAEn batez bestekotik gora dago: Zumarragan %13,15, Gipuzkoan %11,05 eta EAEn %12,60 (Iturria: Lanbide, 2010eko azken 3 hilabetekoa)
- 2010eko azken hiru hilabeteetan egin diren kontratuen %94 aldi baterakoak izan dira eta mugagabeak %6. (Iturria: Lanbide, 2010eko azken 3 hilabetekoa)

- Enpresa-egitura eta dinamismo ekonomiko ahula: enpresa indartsuenak balio erantsiko txikiko sektore ekonomiko helduetan dute euren jarduera. Dibertsifikazio ekonomikorik ez da eman; ez da balio erantsi handiagoko sektoretara abiatzeko neurri eraginkorrik hartu.
- Herritarron errenta txikiagoa:
 Urretxu: biztanleko BPG Gipuzkoako mailatik %32 beherago dago eta errenta pertsonala %3 beherago (Iturria: Eustat-en azken datuen arabera)
 Zumarraga: biztanleko BPG Gipuzkoako mailatik %13 beherago dago eta errenta pertsonala %6 beherago (Iturria: Eustat-en azken datuen arabera)

Erronkak eta lan-ildoak

Egoera sozio-ekonomiko larri honen aurrean, Urretxu eta Zumarragako garapena balizko azpiegituren etorreraren menpe jartzea (AHT...), iraunkortasuna oso modu berezian ulertzeaz aparte, estrategia beregain eta proposamen falta handia adierazten du. Aralar behintzat, ez dago ados.

Erronka bezala, kalitateko enpleguak sortu dituen tokiko ekonomia berritzailea, ekologikoa eta solidarioa bultzatu nahi du Aralarrek, lan-ildo hauekin:

- Kalitateko enplegua sortuko duen plana eta langileon defentsa aktiboa
- Gizarte-ekonomia berritzailea eta balio erantsi handikoa sustatu
- Lan-eremuan aukera berdintasunaren alde eta bazterketaren aurka lan egin
- Bertako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatu.
- Kontsumo arduratsua sustatu eta bertako merkataritza babestu
- Bidezko-merkataritza eta elkartasun nahiz lankidetzeta-proiektuetan sakondu.

17 neurri zehatz eta egingarri

Horretarako, azken urteotan gure Udaletan aurrera eraman diren politikak irauli behar ditugu, eta baditugu alternatiba zehatz eta egingarriak. Maiatzaren 1aren testuinguruan gainera, Urretxuko eta Zumarragan kalitateko enplegua sortu, ekonomia biziberritzeko eta garapen justuago baterako 17 neurri zehatz proposatu nahi ditugu.

Neurri hauek Urretxu eta Zumarragako Udalek aldi berean eta modu koordinatuan jarri beharko lituzkete martxan, eta Mankomunitate mailan egingo balitz, Legazpi eta Ezkio-Itsasorekin batera esaterako, askoz hobea. Horrela, hartutako neurriek eragin eta inpaktu askoz handiagoa izango lukete.

17 proposamen egingarri eta berehala martxan jarri daitezkeenak:

- Urretxu eta Zumarragako Udalen, Urola Garaiko Mankomunitatea eta titularitate publikoa duten enpresa nahiz erakundeen konpromisoa altxortegi arazoak dituzten bertako enpresa-hornitzaileei 30 egunetan ordaintzeko.
- Urretxu eta Zumarragako Udalek eta Urola Garaiko Mankomunitateak, kutxa eta Aldundiarekin batera bideragarriak diren eta inpagoak nozitzen dituzten enpresei dirua bermatzeko finantziazio-funtsa sortzea.
- Enpresa txiki berriak sortzeko asmoa duten ekintzaileei erakunde publikoek abal publikoen mekanismoak sortu behar dituzte: Seed Capital edota Elkargi bezalakoak, baina tamaina lokalean.
- Udaletan kontratazio publikoa eta zuzena lehenestea, batez ere gizarte-zerbitzuen alorrean. Ezin direnetan klausula bereziak jarri eta jarraipen mekanismoak jarriko dira langileen lan baldintzak duinak bermatu daitezen.
- Legeak, eta zehazki, Eusko Jaurlaritzaren 6/2008 erresoluzioak ezartzen duen moduan, kontratazio publikoan klausula sozialak ezartzea. Honen arabera giza bazterketako egoeran dauden pertsonen gizarteratzea bultzatzen duten enpresentzako zenbait kontratu publikoren erreserba egitea proposatzen dugu.
- Lanean hasteko eta laguntzeko programak ezartzea proposatzen dugu. Programa hauen bidez Udaleko kontratazioan bertako langabetuak kontratatzeko klausulak ezarriko dira.
- Legeak aukera ematen duen lizitazio, eskaintza eskari edota gonbidapen bidezko lehiaketa guztietan, gutxienez, herriotako enpresa bati leku bat gordetzeko konpromisoa Udalen aldetik.
- Enpresa txiki eta ertainen kopurua handia izanik elkartegintza eta lankidetzaren enpresariala sustatzeko programa abian jartzea.
- Gizarte-ekonomiako enpresen sorrera indartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea, eta era berean Udalen lizitazioetan eta baldintza pleguetan ezaugarri horiek dituzten enpresak balioestea.
- 35 orduko lanaldia bultzatu behar da, soldata murrizketarik gabe

- Merkatu-hobi berrietan enpresa proiektu berritzaileei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea jardueraren hastapenetatik: energia berriztagarriak, arlo sozio-sanitarioa eta Informazio eta Komunikazio Teknologietan.
- Uggasa eta Goieki-ren arteko lankidetzeta-hitzarmen estrategikoa: eskualdeko ekonomia biziberritzeko programen arteko lankidetzeta eta koordinazioan sakontzeko.
- Enpresaren Langileen Batzarrak onartu ez duen ERErik ez onartu Langileen eskubideen defentsan paper aktiboagoa jokatu behar du Udalak.
- Baimen gehiagorik ez merkataritza-gune erraldoiak egiteko ezta daudenak zabaltzeko ere.
- Belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko plana martxan jartzea merkataritzan, ostalaritzan eta desagertzeko arriskuan dauden familia-enpresa txikietan
- Merkataritza zentro irekiaren kontzeptua lantzea herriko merkatariekin, hartara, herria bera merkataritza zentro bihurtzeko eta herrian bertan erostea bultzatzeko Merkatariekin batera, herria dinamizatzea eta herritarrak bertan geratzea lortzeko dinamikak jartzea.
- "Ekolapikoa" bezalako programak abian jartzea titularitate publikoa edo Udalaren esku-hartzea duten erakundeetan. Ospitalea, Geriatrikoa, Eguneko Zentroa, haurreskolak eta ikastetxeetan jangelen kudeaketa zuzena bultzatzea elikagai ekologikoak eta herriotako nekazari nahiz abeltzainen produktuen kontsumoa lehenetsiz.

Lanaren arlora heltzea errazteko jarduketak

Tokiko garapen iraunkorrean, lana sortzeko estrategiak sortu behar dira eta hauek guztiak lortzeko neurriak hartu behar dira: espiritu ekintzailea bultzatzeko neurriak, lanaren arlora heltzea lortzekoak, etengabe aldatzen ari den lan merkatura egokitzeak, diskriminazioaren eta gizarte bazterketaren aurka egitekoak eta ekonomia soziala sustatzekoak. Konpromiso horiek errealitate bihurtzeko daitezkeen lortzeko jarduketak hauek bultzatuko ditugu:

- Lanbide prestakuntzako politiken zati bat dezentralizatzea udalerrietara, eskualde, probintzia edo/eta autonomia mailan jarduteko planen barnean.
- Lanaren arlora heltzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen taldeak lehenestea (ahalmen urritasunen bat dutenak, gazteak, 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak, etorkinak...) politika aktibo guztietan, kontratatzeko laguntzak barne.

- Ekoizpen inbertsioetan eta enpleguko politika aktiboetan lurralde oreka berria lortzea: errenta txikiena eta premia sozial handienak dituzten udalerrietan inbertsio handiagoa egitea.
- Politika integralak (enplegu planak) jartzea abian, toki mailan. Lanik ez duten pertsonak politika horietan sartzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak bultzatu behar dira: dela prestakuntza ematea, dela lanean hasteko bitartekaritza egitea, dela lanbide orientazioa ematea... Gainera, foru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin itundu behar dira politika horiek, eta baliabide nahikoak bideratu behar dira.
- Laneko praktikak egitea lanbide heziketa hartzearekin uztartzen dituzten politikak abian jartzea, toki mailan enplegua sortzeko potentzial handiena duten esparruetan. Enpleguaren eta tokiko garapenaren arloan, tokiko administrazioetako proiektuetarako konkurrentzia "lehiakorraren" figura ezabatzea. Irizpide objektiboen arabera banatu behar dira baliabideak (biztanleria, errenta, langabezia...), eta beti bideratu behar da zatirik handiena behar handienak dituzten lurralde eta herrietara, ez administrazioen arteko lehiaren bidez.
- 35 orduko lanaldia onartu behar da, soldata murriztu gabe.
- Tokiko saltoki txikiak sustatu behar dira, gizartearen kohesioari eusteko modu gisa, bereziki hirien erdialdeetan eta auzoetan. Eredu horren alde egin behar da, merkataritzako saltoki handien aurrean.

3.2. Gizarte-ekonomia berritzailea eta balio-erantsi handikoa sustatu

Jarduera ekonomikoa bultzatzeko jarduketak

- Ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik, garapen iraunkorra eta orekatua errespetatzen duten enpresa ekimenak sortzea laguntzea.
- Pertsona autonomoei eta mikroenpresei laguntzeko planak garatzea, lan harremanen esparruan integratzea eta haien artean elkarlanean aritzea bultzatuta.
- Esportazioa laguntzeko planak bultzatzea.

Ekonomia soziala laguntzeko jarduketak

Ekonomia sozialeko ekimenak laguntzeko eta bultzatzeko politikak elkertasunezko enpresa jarduera garatzeko eta langileek enpresan parte hartzeko tresna dira. Horretarako, neurri hauek jarriko ditugu martxan:

- Ekonomia sozialeko enpresak eratzeko laguntza teknikoa ematea.
- Jarduera hastean diru laguntzak ematea.
- Udalen kontratu publikoen baldintzen pleguetan aintzat hartzea.

- Prestakuntza ematea eta kontzientzia harraraztea enpresa horiek lanik ez duten pertsonen artean sustatzeko, langileek enpresen kudeaketan parte hartzeko metodo moduan.

Teknologia berrietara egokitzeko jarduketak

Gure gizarte honetan dagoen teknifikazio maila altuaren eta gertatzen diren aldaketa azkarren ondorioz, lana bermatuko duten egokitasun modu berriak garatu behar dira:

- Tokiko enpresen arteko lankidetzak sustatu behar da, aldaketetara egokitzeko metodo eraginkor moduan.
- Etengabeko prestakuntza hartzeko sistemak hobetu behar dira, tokiko mailan, langileek beren prestakuntza hobetzeko bidea izan dezaten, bereziki enpresa txiki eta ertainetan, ekonomia globalaren etengabeko aldaketen aurrean ahulagoak baitira.
- Tokian tokiko egituraren informazioaren teknologia berriak sartzea bultzatu behar da.
- Era berean, energia iraunkorrak sartzea sustatu behar da.
- Esperientzia berritzaileak erakustea eta zabaltzea lagundu behar da.
- Kalitate sistemak bultzatu behar dira.

Eskualdeko egiturak eta lankidetzak-proiektuak indartu

Aralarretik zalantzarik gabe ekonomia produktiboaren aldeko apustua egiten dugu. Ekonomia errealearen aldeko apustua, ekonomia solidarioaren aldeko apustua. Aberastasuna sortzen eta banatzen lagunduko duen ekonomia sustatzen, garatzen eta bermatzen ahaleginduko gara. Garapen iraunkorrean, bere zentzurik zabalenean, oinarritua. Eta ahal den neurrian produkzioaren dibertsifikazioan oinarrituko dena. Beraz, egitura berdea eta dibertsifikatua izango duena. Kooperatibismoaren presentzia areagotzen saiatuz.

Orain arte enplegua sutatu eta garatzeko politikak era hierarkikoan bideratu dira erakundeetatik. Zentzu honetan ikustea besterik ez dugu Sprilurren eredu. Hau da, bertatik zetozen inizatibak inplementatzera mugatu dira udaletan.

Aralarren uste apalean, orain arteko politikak berrorientatu beharrean aurkitzen gara, erakundeen arteko koordinazioa, harremana benetan gauzatuz, sendotuz behetik gorako bideak irekiz: maila lokaletik globalera. Globalizazioarekin jokatzuz, sareak osatuz eta zabalduz.

Eskualde, mankomunitate mailan bai barrura begira, udalen eta enpresen inplikazioarekin sare egituratuak sortu eta sustatu behar ditugu, ondoren eskualde arteko sinergietara pasatzeko. Maila horretan, mankomunitateetan ditugun Garapen Agentzien papera funtsezkoa eta garrantzitsua izanik, beti ere udalekin elkarlana gauzatuz. Ikustea besterik ez Ingalaterran martxan diren Transicion Town gisako ekimenak. Aipatu ere, EAE mailan,

zenbait eskualdeetan ere, agentzia hauek ari direla poliki-poliki protagonismoa hartzen enplegu politikak abian jarritz.

Aralarren iritziz Garapen Agentzi hauek “palanka” gisa erabili behar ditugu, ekonomia iraunkorra sustatzeko eta garatzeko. Herri ikuspegia galdu gabe. Goitik beherako eta behetik gorako artikulazioak txertatzeko, helburua herri eta hiri sozialak izanik, eta eragileen enpoderamendua.

Politika hauek ezartzeko finantzaketa bideratzerako orduan. Diru laguntzak:

- Berrikuntza mailan polo xumeetara bideratu.
- Lanpostua sortzen duten gunetara.
- Unibertsitateko proiektuei bideratu zuzenean edo agentzien bidez.
- Tokiko dinamika beti oinarri izanik.

Ikerketa eta garapena sustatzerako orduan diru laguntzak enpresa ertain eta txikiei bideratu, eta ez orain arte bezala enpresa handiei.

Etiketara “berdea” eta soziala gauzatzeko protokoloak bideratu enpresetan.

Produktu hobi berriak ikertu behar sozialak eta ingurumenekoak kontutan izanez. Beti ere, kontziliazio neurriak praktikara eramateko politikak landuz eta ezarriz.

Prestakuntza enpresen beharrekin lotu. Lotura zuzena bideratu lan mundu eta heziketa munduarekin.

Etenik gabeko ebaluazioa, jarraipena eta kontrola bermatzeko politikak garatu.

3.3. Lan-eremuan aukera berdintasunaren alde eta bazterketaren aurka lan egin

Bermatu behar dugu kolektibo bakar bat ere ez gelditzea lanaren arlora heltzeko aukerarik gabe; eta, horrenbestez, kolektibo guztiek arlo horretara heltzeko aukera berberak izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditugu, bai eta, behin arlo horretan sartuta daudenean, tratu baldintza berberak izatea bermatzekoak ere:

- Ordezkatze txikia duten lanpostuetan eta lanbideetan, eta egun langile falta adierazgarria dutenetan (lan aukera), emakumeak kontratatzea bultzatzeko helburua duten jarduketak sustatu behar dira.

- Gizonen eta emakumeen artean aukera berdintasun osoa lortzeko tresna gisa prestakuntza bultzatu behar da, segregazio bertikala eta horizontala gaintzeko prozedurarik eraginkorrenetako bat baita. Hartara, emakumeek prestakuntza hartzeko ikastaroetan parte hartzea lagunduko da, lana aurkitzeko aukera handiagoak izan ditzaten eta, behin lan hori lortzen dutenean, mailaz igotzeko aukera izan dezaten.
- Enpresen langile zerrendetan diskriminazioa amaitzea bultzatzeko helburuarekin, kontrataziorako baldintzen pleguetan emakumeen, ahalmen urritasunen bat duten pertsonen eta abarren gutxieneko kopuru bat sartu beharko litzateke.
- Emakumeentzat lana sortzen duten ekimen pribatuak eta autoenplegua sustatzekoak lagundu behar dira.
- Tokiko langileen artean bizitza pertsonala eta lana bateratzeko neurriak zabaltzeko kanpainak egin behar dira (adibidez, baimenak eta pertsonak zaintzeko eszedentziak hartzekoak).
- Tokiko enpresen eta enpresaburuaren artean praktika onak bultzatu eta transferitu behar dira, bizitza pertsonala eta lana bateratzeko gaian. Izan ere, lortu behar da ulertzea praktika on horiek ezartzeak ez duela zertan ekarri ekoizpena gutxitzea. Enpresa horietan antolakuntzaren eta teknologiaren arloko aldatetarik sartzeak ekarri ahal izango lituzke laneko denbora kudeatzeko eredu berriak, eta horiek eragina izango lukete, batetik, langileen ongizatean, eta bestetik, ekoizpenean.
- Emakumeak lanaren merkatuan sartzea bultzatzera bideratuta dauden jarduketak (baterako hezkuntza edo koedukazioa, prestakuntza, klipseak alde batera uzteko kanpainak...).
- Balio berbereko lanen truke berdin ordaintzeko printzipioa zaindu behar da.
- Mendekotasunari arreta egiteko politika lagundu behar da: haurtzaindegietan plazak lortzeko erraztasun handiagoak eman behar dira (bai lan egiten duten aita eta amentzat, bai lan bila dabilentzat ere), pertsona zaharrei etxez etxeko laguntza ematea bultzatu behar da...
- Ahalmen urritasunen bat duten pertsonak lanean aritzeko kupoak betetzen direla zaindu behar da, bai tokiko enpresetan, bai eta administrazio publikoetan ere.
- Enpresaren arloko sentsibilizazioa bultzatzeko kanpainak egin behar dira.
- Enpleguko zentro bereziak sortzea lagundu behar da.
- Intserzio enpresak garatzea lagundu behar da. Hain zuzen, intserzio enpresa horiek dira merkatuan aritzen direnak -beste edozein enpresa bezala-, lanaren bidez, gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko funtsezko helburuarekin.
- Gizartetik baztertuta dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsonak lanaren arlora hel daitezen bultzatu behar da, ibilbide integralen bidez.
- Ziurtatu behar da gizarte babeseko sistemek aukera ematea pertsona guztiei duintasunez bizi ahal izateko nahikoak diren diru sarrerak jasotzeko.
- Gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonentzat diren programetan ikuspegi integrala erabili behar da; hau da, ez da landu behar bakarrik lanaren

gaia, baizik eta etxebizitzarena, heziketarena, osasunarena eta abar ere aztertu behar dira.

- Prestakuntza espezifikoa eskura izatea bultzatu behar da etorkinen artean.
- Lana bilatzeko dauden bideei buruzko informazioa eman behar zaie etorkinei, prestakuntza eta lan ibilbide pertsonalizatu bidez.
- Etorkinentzat programa espezifikoak egin behar ditugu; zenbait alderdi hartzen dituzten programak, besteak beste, hizkuntza ezagutzea, eta gizarteratzea nabarmentzen dutenak, hain zuzen.

3.4 Bertako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa bultzatu

- "Ekolapikoa" bezalako programak abian jartzea titularitate publikoa edo Udalaren esku-hartzea duten erakundeetan. Ospitalea, Geriatrikoa, Eguneko Zentroa, haurreskolak eta ikastetxeetan jangelen kudeaketa zuzena bultzatzea elikagai ekologikoak eta herriotako nekazari nahiz abeltzainen produktuen kontsumoa lehenetsiz.
- Produktu eta ekoizpen ekologikoen azokak sustatuko ditugu.
- Nekazari eta abeltzainek euren produktuak zuzenean banatzeko eta bitartekorik gabe egin ahal izateko laguntza eta aholkularitza eskaini.
- Herriko baratzen antolamendua egin eta arautegi bat ezarri.
- Kontsumo-talde eta kooperatiben lana sustatuko dugu.
- Gazteek nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzeko laguntza eman.
- Kontsumo-sareak eta produktore gazteak lotuko ditugu

3.5 Kontsumo arduratsua sustatu eta bertako merkataritza babestu

Merkataritzaren arloan:

- Merkatarari txikiei laguntzea eta horiek babestea, herriaren bizitza bermatzen baitute. Merkataritza zentro ertainak eta handiak kokatzeko araudi zorrotzak ezartzea.
- Merkataritza zentro irekiaren kontzeptua lantzea herriko merkatariekin, hartara, herria bera merkataritza zentro bihurtzeko eta herrian bertan erostea bultzatzeko. Hiriaren plangintza egiteko unean merkataria ere hartu behar dira aintzat. Kaleen diseinua egiterakoan, oinezkoei lehentasuna eman behar zaie eta aparkalekuen egokitasuna aztertu behar da.
- Merkatariekin batera, herria dinamizatzea eta herritarrak bertan geratzea lortzeko dinamikak jartzea abian.

- Lehenengo sektorean existitzen den belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko plana merkataritzaren arlo honetan ere martxan jartzea.
- Baimen gehiagorik ez merkatal-gune erraldoiak egiteko ezta daudenak zabaltzeko ere.
- Produktu erabilien sarea sortzen lagundu.

Kontsumoaren humanizazioa, kontsumitzaile-taldeak...

3.6 Bidezko-merkataritza eta elkartasun nahiz lankidetzaproiektuetan sakondu.

Udalek bultzada handia eman behar diote jarduera mota horri, bidezko merkataritzako tokiko sareak sortzen eta garatzen lagunduta, merkataritzako saltokiekin harremanak erraztuta, jardueran parte hartzea lagunduta, udal azoka eta ferietan horientzat propio tokiak gordeta, eta herritarren artean ezagutzera emanda.

Aralarrek lehenetsiko du aurrekontuetan garapenerako lankidetzara bideratutako funtsak honako hauetarako erabiltzea:

- Biztanleen talde batzuen gabezia egoera kronikoak konpontzen laguntzen duten jarduketak gauzatu behar dira -programak, proiektuak...-, kolektibo horien ekonomia, gizarte edo kultura ahalmenak indartuta. Alde horretatik, bereziki hartuko dira aintzat lehen mailako premiei erantzutekoak direnak: osasuna, elikadura, oinarrizko heziketa eta prestakuntza, erakundeak sendotzea, antolaketa soziala bultzatzea, generokoa, giza eskubideak...
- Kaltetuentzako laguntza eman behar zaie -jan-edanekin lotutakoa eta larrialdietakoa-, presazko laguntza behar duten herriei, gabezia egoera larriak arintzeko, eta beren gaitasunen arabera.

Aralarrek defendatuko du administrazio publikoaren aurrekontu errearen % 0,7a nazioarteko kooperaziora bideratzea.

4. Ingurumenaren errespetuan oinarritutako garapen- eta energia-eredu berrira abiatu

4.1. Jasangarritasun-irizpideak sail eta jarduera guztietan ezarri

Eguneroko politiketan iraunkortasun irizpideak ezartzea izan behar du gure oinarritzko printzipioak. Globalizazioaren eta beroketa efektuaren leloa abiapuntu hartu behar dugu, "globalean pentsatu, lokalean esku hartu". Gure herriak ingurumena hobetzeko neurri ausartak eta berritzaileak hartzeko esparru ezin hobeak dira. Herri osasuntsuagoak, bizikaltate hobekoak eta inguruarekin errespetuzkoak eraikitzea behar du gure zeregin nagusia.

Honako neurriak proposatzen ditugu:

- Jarduera ekonomikoak baliabide naturalen erabilera iraunkorrerantz berbideratzea, inguruneak biziberritzeko duen gaitasuna gaingitu gabe eta ekoizpen garbia, kontsumo arduratsua eta gizarteari begira erabilgarria den lanaren sorrera sustatzea.
- Agenda 21 eta bestelako tresnen aplikazio egokia, parte-hartzea bermatuz, eta aurrekontu duinak ezarri.
- Kudeaketa publikoan ingurumen-arloko jarduera egokiak orokortzea, udal instalazioetan, kontratazioetan, horniketetan...
- Udal kontratazio guztietan klausula sozialak eta ingurumen arlokoak txertatzea.
- Mugikortasun iraunkorra sistema guztiaren ardatz nagusitzat hartzea.
- Ingurumen arloko heziketa eta sentsibilizazioa lantzea kanpaina eta ekimen espezifiko bidez.
- Udaleko sail guztietan ingurumen-ikuspegia txertatzea, eta hondakinen sorrera murrizteko neurriak hartzea.
- Soinu eta argi kutsaduraren aurkako neurri zorrotzak hartzea.
- Garraioak eragindako isurketak murrizteko neurriak hartzea, hala nola oinezkoentzat eta bizikletentzat gunek lehenetsiz.
- Herriko bioaniztasuna babestea.
- Animalien tratu txarren aurkako ordenantza eratzea.
- Hirigintza planetan eremu naturalak zaintzea eta handitzeko politikak bultzatzea, eta bide naturalak eta babes-guneak sortzea.
- Landa garapena sustatzea.

4.2. Energia aurreztu eta kontsumoa baretzeko neurriak hartu; erregai fosilen gutxitzea energia berriztagarriekin ordeztuz

- Energia berriztagarrien erabilera areagotzea, udal eraikinetan energia gutxitzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko neurriak jarritz.
- Erregai fosilen gutxitzea energia berriztagarriekin ordeztu.
- Legegintzaldian zehar, argiteria publikoa eta udal eraikinen energia kontsumoa %20 murrizteko neurriak hartzea.
- Argiteria publikoaren instalazioa arautzeko araudiak onartzea, eraginkortasun irizpideak aintzat hartuta.
- Eraikin berrietan irizpide bioklimatikoak ezartzea.
- Industriak sortutako hondakinak eta igorpenak gutxitzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- Kanpoaldean erabiltzen diren elementu berotzaileak erregulatzea.
- Udal horniduretan elementu transgenikoak egotea alde batera uztea.
- Sakelako telefonoetarako antenak jartzea eta horien ahalmena arautzen duten udal ordenantzak egitea bultzatzea, beharrezkoa denean aurrez neurriak hartzeko printzipioa aplikatuta.

4.3. Uraren kultura berria eta kontsumoaren murrizketa

- Uraren kultura berria sustatzea, kontsumoak murrizteko politikak bultzatzea eta, eskaria kudeatzeko neurriak ezartzea.
- Udal eraikinetan uraren kontsumoen gaineko auditoriak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea.
- Ura aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko programak abian jartzea, eskariaren plangintza irizpideak kontuan hartzea, eta erakunde ekonomiko eta sozialen partaidetza sustatzea.
- Berdeguneak eta kirol instalazioak ureztatzeko sistemak automatizatzea eta euri-ura erabiltzeko sistemak ezartzea.
- Legegintzaldian uraren kontsumoa udalerrian %20 murrizteko neurriak hartzea.
- Banaketa sareetako galerak murriztea eta araztutako hondakin-urak berrerabiltzea.
- Sarearen sektorizazioa bultzatzea, galerak murrizteko, matxurak gutxitzeko, eta horien kalte eta ondorioak murrizteko.
- Uren kalitatea berreskuratzeko programak abian jartzea.
- Industria eta bestelako jarduera ekonomikoen isurketak kontrolatzea.
- Erabiltzen dugun uraren ziklo osoa kontrolatzea, araztegien funtzionamendua aztertuta eta ingurumenari egiten zaion kalte ahalik eta gehiena murrizteko hobekuntzak planteatuta.
- Urak fluorizatzeke egun erabiltzen den prozesuaren egokitasuna aztertzea.

- Tokian tokiko espezie botanikoen eta ur gutxien behar dutenen erabilera bultzatzea.

4.4 Hondakinen kudeaketa integrala eta zero zabor filosofia bilduz

- Hondakinak gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklapena sustatzea.
- Hondakinak tratatzeko orduan, errausketa gaitzeste, osasunerako arriskutsua delako. Hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea lehenesten duten ereduak abian jartzea.
- Hondakinak sortzen diren tokitik ahalik eta hurbilen tratatzea.
- Hondakinak murrizteko eta birziklatzeko heziketa eta sentsibilizazio programak lantzea.
- Garbigune finkoak eta ibiltariak sustatzea, bai hiritarrentzat, bai industriarentzat ere.
- Hiri hondakinak kudeatzeko ziklo osoa aztertzea, eta, beharrezkoak diren inbertsioak sustatuta, horietan guztietan kudeaketa iraunkorra egitea bultzatzea.
- Industriako hondakinak berrerabiltzea bultzatzea, beste industria batzuetarako lehengai moduan.
- Atez ateko bilteta martxan jartzen saiatzea, hondakinak biltzeko emaitza onenak dituen sistema dela argi gelditzen ari baita, alde handiarekin, gainera.

4.5. Kutsadurari (airea, Urola ibaia, zarata...) irtenbidea eman

- Udalerriko zarata maileri buruzko diagnostikoa egitea, eta prebentziorako neurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzea.
- Udal ordenantzen bitartez, lurzorua erabilera eta ordu tarte desberdinetan eskatu beharreko gehieneko zarata mailak zehaztea.
- Zirkulazio gune nagusietan abiadura moteltzeko neurriak hartzea.
- Adituekin diagnostiko zorrotza egin eta ekintza-plana abian jarri

4.6. Lorategi, parke eta gune berdeak areagotzea

Herritarren onurarako eta aisialdirako gune diren neurrian, espazio publikoaren erabilera sustatzeko gune gisa bereziki zaindu beharreko eremuak dira. Lurraren artifizioa eteteko gune gisa hartu behar ditugu. Oso kontuan hartu beharreko herriko ondarea dira, eta beraz, ahalik eta errespetu handienaz tratatu behar dira:

- Berdeguneen kudeaketa iraunkorra eta ekologikoa bultzatzea.
- Parke eta lorategien egoeraren gaineko azterketa egitea eta neurriak hartzea horiek hobetzeko, ikuspegi ekologiko eta sozial batetik.

- Bertako eta sasoiko landareei eta loreei leku berezia egitea.
- Baratze ekologikoak bultzatzeko programak abian jartzea.
- Erreka bazterrak berreskuratzeko plana egin eta garatzea.

5. Herritar eleanitzez osatutako herri euskaldun, osasuntsu, kritiko eta sortzailea bultzatu

5.1. Euskara zerbitzua indartu eta euskararen erabilera ardatz izango duen hizkuntza-politikan salto kualitatiboa eman

Administrazioak hizkuntza eskubideen berme izan behar du eta, gainera, horretan ere modu eredugarrian jokatu behar du. Administrazio ezberdinen artean hizkuntza eskubideetan gehien aurreratu duen administrazioa udal administrazioa dela aitortuta ere, oraindik ahalegin handiagoa egin behar du, ahozko zein idatzizko atentzioa herritarrek aukeratutako hizkuntzan izango dela bermatzeko.

Hizkuntza politika ez da sail bakar baten zeregina, udal osoarena baizik. Gai honek transbertsala edo zeharkakoa izan behar du udal osoan, eta departamentu edo sail propioa osatuko du, bestelako sailetatik bereizita (normalean kulturarekin lotu izan da).

Bestetik, euskarak bere esparru propioak behar ditu non bizitza sozialaren komunikazio-erreminta nagusia izango den.

Hartu beharreko neurriei dagokienean:

- Urretxuko eta Zumarragako udalek euren hizkuntza plana izango dute (bakarra hobe), eta bertan, udalerrian euskara sustatzeko neurriez gain, udalen funtzionamenduari dagozkion neurriak eta pertsonalarekin lotutakoak jasoko dira (bereak, enpresa publiko zein fundazioetakoak, eta azpikontrataturako zerbitzuetakoak).
- Urretxuko eta Zumarragako udalek, gutxienez, aurrekontuaren % 2a bideratuko du euskararen normalizazioa sustatzera.
- Urretxu eta Zumarragako Udalen Euskara Zerbitzuak indartu behar dira, baliabide gehiago jarri. Eusko Jaurlaritzak ezarritako irizpideen arabera Urretxuko Udaleko Euskara Zerbitzuan bi teknikari egon beharko lukete (gaur egun, bat dago) eta Zumarragan hiru (egun, bat dago).
- Sortzen diren lanpostu guztietan euskara ezagutzea nahitaezkoa izango da, eta ardura maila eta lanpostuaren izaeraren arabera hizkuntza eskakizunak ezarriko dira.
- Eragile zein instituzio desberdinekin (Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, bereziki) koordinazio estua izango dute, indarrak batu eta ahaleginak bikoiztu ez daitezen.

- Urretxuko eta Zumarragako udalen ekimenetan, zein horiek sustatu edo diruz lagundutako edozein ekitalditan euskararen lehentasunezko presentzia bermatuko da.
- Udal administrazioak euskarazko harremanei emango die lehentasuna gainerako administrazioekin dituen harremanetan, bai eta herritarrekin dituenetan ere.
- Udal titularitateko haur eskoletan D eredia ezarriko da.
- Euskararen erabilera bultzatzeko aisialdiko jardueretan euskarazko eskaintza egokia egon dadin ahaleginduko da: zine, antzerki, kirol-ekimen, musika-jaialdi, gazte-jardunaldi eta abarretan. Halaber, erabilera areagotzeko sentsibilizazio-kanpainak egingo ditu.
- Urretxuko eta Zumarragako udalek herriko euskalgintzako agenteekin eta bestelako agente sozialekin hitzarmenak sinatuko dituzte euskararen erabilera soziala areagotzeko
- Etorri berriek euskararen eta euskal kulturaren berri izan dezaten eta euskara ikasi ahal dezaten Urretxuko eta Zumarragako udalek ekimen berariazkoak antolatuko dituzte.
- Zerbitzuak kontratatzean hizkuntza-irizpideak ezarriko dira eta azpikontratazioetan administrazioan aplikatuko lirakekeen neurri berak aplikatzea eskatuko da euskarari gagozkiolarik.
- Udalek helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko kanpainak eta laguntzak bideratuko dituzte eta euskara ikasleen saiatzea diruz lagunduko dute. Zehaztapenetan ez nintzateke sartuko.
- Gainera, lan arloan euskara sustatzeko kanpainak eta plangintzak bultzatuko dituzte udalek.
- Urola Garaiko Mankomunitate mailan merkataritza, lan-munduan eta eskola-kirolean koordinazioa ezinbestekoa da. Aztertu beharko litzateke Urola Garaiko Mankomunitatea eskualde begira lan egingo duen Euskara Zerbitzua izatea, beste hainbat eskualdetan dagoen bezala.
- Lan-mundua euskalduntzeko eta hizkuntzen kudeaketak enpresetan duen garrantziaz enpresari nahiz langileak jabetzeko Uggasak hainbat programa martxan jartzea proposatzen dugu.
- Erabilera: Gazteen arloa eta aisialdia estrategikoak, horietan eragin behar da, lehentasunezko arloak dira.
- Eskualde mailako euskarazko eskaintza komunikatiboa bultzatuko da, eta prentsa lokalean ari diren euskarazko hedabideen elkarlanean jardungo dugu.

5.2. Euskara ardatz izango duen kulturgintza sortzaile eta parte-hartzailea bultzatu

Kultura ikusgarri moduan hartzeko gehiegizko ohituraren aurrean, Aralarrek herriko sortzaileak eta talde eragileak izango ditu kultur erreferente nagusitzat, ikuskizun eskaintza baztertu gabe. Kultura bizipen eta prozesu moduan ulertu behar dugu.

Euskarazko eta Euskal Herriko kultura zutarri nagusia izango badugu ere, kultur aniztasuna aintzat hartuko dugu, dela sorkuntzan, dela ikuskizunetan, eta merkatuaren eta prozesu globalizatzailaren ohiko logika estandarizaziotik ihesi.

Kultur etxea, hurbileko ekipamendu moduan, herriko kultur gintzaren erreferente nagusia (ez bakarra) izateko lan egingo dugu. Halaber, kultura politika gizarteratzeko eta gizarte kohesiorako tresnatzat hartuta jardun behar dugu. Ahalegin berezia egingo da kultur adierazpen guztiei leku egiteko, baita erakundeen logikatik kanpo gelditu ohi diren kaleko arteak biltzeko ere.

Ezagutzak trukitzea da kultura, eta horregatik, kultura modu unibertsalean eskura izateko sistema publiko bat eskaintzeaz gain, kulturaren parte hartzean sakondu behar da. Horretarako aukera bat kultur-guneen elkarren arteko kudeaketa da, gure ustez, horrela lortzen baita erabiltzailea bera gertu egotea eta inplikatzea tokiko kultur politikan.

Hona hemen gure lan ardatza:

- Kultura gizarteratzeko elementu gisa landu, herritarren parte-hartze aktiboa sustatu.
- Herritarren, artisten eta kultur taldeen eskura jarri herriko kultur azpiegiturak.
- Euskarazko kulturari eta euskal kulturari lehentasuna eman, bai sortzaileei, bai eta ikuskizunen programazioei ere.
- Liburutegia kultur azpiegitura erabilienetakoa izaki, eta edozein kultur politikan estrategikoa, azpiegitura egokiak jarri herritarren eskura: fondoak digitalizatzeko, haurrentzat egokitutako guneak, internetarako sarbidea, irakurzaletasuna sustatzeko programak, mediateka zerbitzuak eskainiz...
- Urretxu-Zumarragako historia aztertu, ikertu eta sustatu.
- Ondarearen lanketa berezia egin, behar izanez gero, horretarako plangintza zehatz bat prestatuz: ahozko ondarea, ohiturak, festak, ondare arkeologikoa, arkitektonikoa, artistikoa... zainduz, zaharberrituz, balioa emanez, eguneratuz eta sustatu.
- Herrian dauden kultur errealitate ezberdinak aintzat hartuz, horiei leku egin, sustatu, zabaldu eta elkar ezagutzeko programak garatu.
- Ikastetxeekin elkarlanean, kultura sustatu, bultzatu eta ezagutzeko programak abian jarri.
- Eskola-orduz kanpo, haur eta gazteei bideraturiko kultur ekintzak eta jardunak antolatu.
- Publiko berriak sortzeko lan egin.
- Oroimen historikoa berreskuratzea bideratuta dauden lanak lagundu azpiegiturak eskainiz eta diru laguntzak luzatuz. Hain zuzen, politikak eragindako biktime guztien lekukotzak bildu nahi dira, frankismoko biktimeak barne.

- Kultur-guneen kudeaketan sakondu, egitarau partekatua eta gune horien elkarren arteko kudeaketa lehenetsiz. Kultur elkarteek, beren burua kudeatzen duten taldeek, jaietako batzordeek... independentzia eta autonomia izan behar dute beren helburuak modu eraginkorrean lortzeko eta udal kultur eskaintza instituzionalizatzea saihesteko.

5.3. Gazteriaren autoeraketan lagundu eta baliabideak eskaini

Gazteak gizarte eta herri bateko etorkizuneko sektore ez ezik, gaur egungo gizarte talde dinamikotzat ere hartu behar ditugu. Gainera, kezka eta arazo espezifikoak dituen taldea da. Krisiak gazteak modu berezian astindu ditu, eta lehendik zituzten hainbat arazo larriagotu egin ditu: lan merkatura sartzea, etxebizitza lortzea...

Bistan da orain arteko gazteria politikak ez dutela funtzionatu, eta batez ere, ez dutela gazteen onespenera jaso. Lehen pausua hori aldatzea izan behar du. Gure politika guztietan ardatza izan behar badu herritarrekin batera gauzak pentsatu, aztertu eta egin, are gehiago zaindu behar dugu alor hau gazteekin. Udal departamentu orotatik gazteei zuzendutako politikak erantzun integralak eskaini behar dituzte. Gazteek euren autonomia bermatzen duten baliabideak behar dituzte, gizarteratzea aktiboa eta parte-hartzean oinarritua izan dadin. Parte-hartzea eta gazteek proposatutako jarduerak bultzatzea gazteak subjektu pasibo bihurtzen dituen eredu paternalista gainditzeko bideak dira. Gatazkak konpontzeko prozesuetan gazteen aktibismoa sustatu behar da, sormen espazioek (bai pertsonalek, bai eta kolektiboek ere) duten garrantzia azpimarratuz. Gazteen espiritu kritikoa suspertzeko asmoarekin egingo dugu lan, gizartea aldatzeko euren bultzada eta grina aintzat hartu beharko dugu, eta gizarteko gainerako adin tartekoekin zein eragileekin elkarlanean jardutera bultzatuko ditugu. Gure politiketan honakoak jorratuko ditugu:

- Gazte informazio-puntuak eta gazteentzako azpiegiturak birdiseinatu, gazteekin batera, euren beharrak eta nahiak asetzeko zerbitzu bihurtuz. Etxebizitza, hezkuntza, aisialdia eta prebentzio alorrekin elkarlana sustatu eta koordinazioa areagotu.
- Gaztelekuan eta gazte txokoan elkarren arteko kudeaketa bultzatu, edota herriko aisialdirako zein kulturarako guneetara sarbidea ahalbideratu gazteei.
- Gazteen parte-hartzea sustatzeko parte-hartzean oinarritutako gazte kontseiluak abian jarri.
- Gazteek eurek sortutako espazioak eta ekimenak autogestionatzea bultzatu.

5.4. Bizi-kalitate oneko gizarte aurreratu baten zutabetako bat: kirol praktika askotarikoa eta osasungarria

Kirol praktika sustatzea -maila, sexu eta adin guztietan- bizi-kalitate oneko gizarte kohesionatua, eta osasuntsua lortzeko.

Kirol praktika askotarikoa

- Kirol praktika maila guztietan ahalbidetu: eskola kirolean, herritar guztiengan, baita maila desberdinetako lehiaketetan helburuetako bat goi mailako kirolari eta taldeek emaitza onak lortzea izanik, eta emaitza horiek herrian aukera daukagun kirol modalitate gehienetara zabalduz. **EZ DA ULERTZEN!**
- Bizi-kalitatea oinarri hartuta, kirolaren praktikaren bidez aisialdiaz gozatzeko aukera guztiak herritarren esku jarri, erakunde publikoen eta kirol entitateen laguntzarekin sentsibilizazio kanpainak eta programa jakin batzuk inplementatuz.

Azpiegiturak

- Kirol praktika ahalbidetzeko azpiegiturak bermatu, horretarako udalez gaindiko erakundeak inplikatu.
- 3. adineko kirolaren praktikari duen garrantzia eman, beronen praktika bermatzeko plangintzak martxan jarri, udaletan horretarako izan ditzakegun bitartekoak jubilatu elkarten eta kirol elkarten eskura jarri.
- Kirol instalazioen izaera eta kudeaketa publikoa lehenetsiko da, eta instalazio horien programetan gizarteratzeari eta osasun publikoari emango zaio lehentasuna. Hala ere, irabazteko asmorik ez duten kirol erakundeek instalazioak kudeatzea ontzat jotzen dugu; izan ere, egon litekeen etekinak eragin zuzena baitu tokiko kirola bultzatzen duten erakundeen osasunean.
- Kirol guneen erabilera zabaldu behar da kirolarekin eta jolasekin lotutako beste zenbait premia asetzeko, betiere ekimen horiek bultzatzen dituzten elkarteekin edo erakundeekin koordinatuta. (Gune publikoen erabilera partekatua).
- Kirol instalazioetan beharrezkoak diren hobekuntzak egin behar dira.
- Kanpoko kirolak praktikatzeko oinarrizkoak diren azpiegiturak sortu eta zaindu behar dira.

Euskal Kirola

- Euskal Herriko kirol autoktonoen kirol praktika bultzatu, zabaldu eta indartu. Bide horretan herri mailan burutu ditzakegun ekimenak sendotuz.

Kirol entitateen sendotzea

- Kalitateko kirol praktika bermatzeko egituraketa sendoa eraiki herri mailan. Dauden elkarteak indartuz, bertan diharduten boluntarioei udaletik orotariko erraztasunak bideratuz.
- Elkartegintza, boluntariotza sufritzen ari den krisiaren inguruan azterketa egin, elkarteak garai berrietara egokitzeko neurri eraginkorrak martxan ipini al izateko.
- Irabazteko asmorik ez duten taldeak eta profesionalak ez direnak baino ez dira diruz lagunduko.

Eskola kirola

- Eskola Kirola herri mailan sustatu, garatu eta indartu. Horretarako, herri mailako egituraketa (ikastetxeak, kirol elkarteak) indartuz.
- Udaletatik herri mailako kirol azpiegituren erabilerarako erraztasunak eskaini.

Heziketa eta prestakuntza

- Eskola kirolek afizionatu mailako kirolaren artean dagoen epealdia landu, gazte kirol planak garatuz eta berregituratuz, kirol praktikaren jarraipena errazteko, betiere bizi kalitatea eta prebentzioa ardatz hartuta.
- Kirol praktika ezgaitasunen bat dutenen artean ahalik eta gehiena zabaltzeko planak martxan ipini, sentsibilizazio kanpainak burutu, azpiegiturak egokitzeko diru laguntzak bideratu.
- Kirol munduan kalitatea bermatuta, lan egiteko adituak hezteko prestakuntza ikastaroak egin behar dira.
- Eskola kiroleko programa finkatu eta abian jarri ikastetxeetako ikasleek kirolak elkarrekin praktika ditzaten.
- Oinarriko kirolaren eskaintza osatu eta landu, herriko kirol talde amateurekin eta profesionalak ez direnekin.

Kirolaren baloreak

- Etorrin kopurua gora egiten ari dela ikusirik, kirolaren bidez kohesio soziala, integrazioa sendotzeko, errazteko kirol praktika desberdinak ezarri proiektu pilotuen bidez, beste departamentu batzuekin batera.
- Kirol praktikan osasun politikak nabarmendu. Baita prebentzioan ere, mediku azterketak ezarri eta zabaldu.
- Kirolean etikak eta baloreak duten lehentasuna gauzatzeko, beharrezkoak diren programak diseinatu eta zabaldu.
- Lehiaren ordeztu, kirol herrikoien aldeko apustua egin.

5.5. Irakaskuntza publikoa defendatu herri-ekimenetik sortutako bestelako hezkuntza-eskaintzak aintzat hartuz

Aralarrek hezkuntzarako eskubide unibertsala bermatzeko modurik egokientzat irakaskuntzako sistema publikoa jotzen du.

Herri-ekimenetik sortutako bestelako hezkuntza-eskaintzak (ikastola esaterako) ere aintzat hartu eta bultzatzen ditu Aralarrek.

Udal administrazioak hezkuntza arautuan dituen kompetentziak mugatuak direla kontuan hartuta, herrietako hezkuntza planetan eragitetik, eta administrazioa eta ikastetxeen arteko harremanak sakontzetik jo behar dugula uste dugu. Hezkuntza araututik harago, hezkuntza erabiliko dugu hiritarrak inplikatzeko, gizartea aldatzeko, gizarteratzea bultzatzeko, kohesio soziala areagotzeko eta aniztasunaren integrazioarako tresna gisa gizarteko esparru eta adin guztietan. Hauek gure ardatz nagusiak:

- 0 eta 3 urte arteko zikloaren eskariari erantzutea, eta eskola-denborak zein elkarbizitza-unitateen premiak uztartzea ordutegiak antolatzeke orduan.
- Helduen hezkuntza eskaintza egitea, edukiak eta ordutegiak erabiltzaileen ezaugarrien arabera diseinatuz.
- Giza eskubideekin, bakearekin, elkarrenganako errespetuarekin, elkartasunarekin eta emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunarekin zerikusia duten baloreetan oinarrituta hezkuntza bultzatzea, ingurumen-hezkuntza, osasunerako hezkuntza, hezkuntza afektibo-sexuala, komunikazioaren arloko hezkuntza, kontsumorako hezkuntza... sustatzeko baliabideak eskaintzea.
- Xenofobia eta arrazakeriari aurre egiteko heziketa-lana egitea.
- Herrietako hezkuntza planak garatzea, ikastetxeen, eragileen eta administrazioen parte hartzearekin.
- Ikastetxe guztietan euskara erabiltzeko planak abian jartzea.
- Hezkuntza-sareak sendotzea.
- Familien, eskolaren eta ingurunearen arteko loturak sendotzea.
- Sentsibilizazioarako eta prestakuntzarako jarduketak garatzea: hezkuntza-agentek, familiak eta ikasleak koordinatzea eta dinamizatzea, eta begiraleei zein gurasoen elkarrekin prestakuntza eskaintzea.
- Eskolaratzeko prozesua hobetzeko jarduketak garatzea: eskolako eta laneko ordutegiak uztartzeko ekintzak, familiak ikastetxeetara hurbildu daitezkeen; eskolaratzeko eta hezkuntza-etapa batetik bestera igarotzeko laguntza; zailtasun bereziak dituzten familientzako laguntza, hezkuntza-zereginetan inplikatuta daitezkeen; berdintasunaren aldeko ekintza positiboak, eskolaratzeko prozesuetan bazterketa edo bereizkeria oro ekidin ahal izateko.

- Jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak, aisialdikoak edo oporretakoak sustatzea, eta arriskuan dauden haur zein gazteentzako proiektuak abian jartzea.
- Heziketa komunitatearekin elkarlana egin behar da, eskolara huts egitea eta gizartetik baztertuta gelditzeko arrisku egoerak alde batera uzteko.

Heziketa eredu zabala bultzatuko Aralarrek. Lanaren oinarriak izan behar du udalerrian dauden heziketa erakunde guztien artean ulertzea eta ongi moldatzea lortzea, eredu jakin baten aldeko diskriminazio positiboa ez dadin izan erakunde mailako jarduketan oinarria. Izan ere, ulertu behar da heziketa jarduteko eremu zabala dela, erakundeetatik harago doana, eta, beraz, hezteko espazio desberdinen arteko loturak bilatu behar dira. Hori dela-eta, berariaz aipatu beharko da heziketa ez formala hezteko arlo gisa eta udal heziketa eskaintza ikuspegi zabalago batetik aztertu beharko da.

- Dagokien administrazio tresnen bidez, eskatzen duten ikastetxeen handitzea erraztu eta koordinatu behar da, baldin eta eskaera justifikatuta badago.
- Landa eremuetako eskolak bultzatu behar dira.
- Eskolaz kanpoko jardueretarako diru laguntza sailak sortu behar dira, heziketa ez formalaren esparruan lan egiten duten tokiko elkarteekin koordinatuta egiten direnei lehentasuna emanda.
- Heziketa formaleko eta ez formaleko erakundeen arteko lankidetzarako guneak sortu behar dira.
- Heziketa ez formalaren esparruan aritzen diren erakundeen jarduerak bultzatu behar dira, ikastetxeetan jarritako informazio-taulen bidez.

0-3 zikloa. Haurreskolak.

Familia eta lan mundua uztartzeko bitartekoen garapena sustatu eta gauzatu. Zerbitzuak unibertsalak behar dute izan, familia guztiek aukera berdinak izan ditzaten. Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko urratsak emanez. Aralarretik ikusten dugu, eta aitortzen dugu Haur Eskolak Partzuergoaren sorrerarekin eta garapenarekin urrats garrantzitsua eman dela zentzu horretan, baina, halaber, pentsatzen dugu oraindik orain ere badaudela urratsak emateko, eta Haur Eskolaren izana eta kokalekua berriro definitzeko; hots, gure ustez, Haur Eskolak hezkuntza sailaren menpe eta barnean kokatu beharko liriateke, eta zikloa ez litzateke apurtu behar, Haur Eskoletan 0-3 eskainiz eta ez 0-2 soilik, egun egiten den bezala. Izan ere, gure uste apalean 0-3 zikloak pertsonen heziketan oinarrietakoa baita, eta berorren lanketa eta garapena kalitateko izatea funtsezkoa da, hurrengoko etapekin lotuz eta hezkuntza proiektuan txertatuz, nahiz eta etapa horrek zaintza izaera ere eduki.

Ikas komunitatea. Zenbait zerbitzu.

Ikas komunitatea hainbat eragilek, elkartek eta zerbitzuek osatuta dago. Sare konplexua osatuz, baina gehienetan ordutegiaren koordinazio hutsera mugatzen dena, eta zenbaitetan ezta hori ere. Guztia komunitate baten zatitzat hartu beharrea, auzo eta herri hezkuntza proiektutzat hartu beharrea, partzialki ulertzen da, pertsona bat, ume bat dela, baina bere osotasuna ahaztuz. Horregatik, aldarrikatu eta bultzatu nahi dugu eskola ordutegi barruan eta orduz kanpo dauden zerbitzu osagarrien berrantolaketa, koordinazioa eta hezkuntza proiektuan txertatzea. Berauek aurrera eramaterakoan, eskolarekin, irakasleekin eta gurasoekin ardurak partekatu eta antolatze aldera, administrazioek araudiak aldatu eta araudi berriak garatu beharko lituzkete: ikastetxeetan eskaintzen diren eskolaz kanpoko klaseak (ingeleza, musika, zenbait tailer...), zaintza zerbitzuak.

6. Udalgintza- eta kudeaketa-eredua

Udalak herritarrongandik hurbilen dauden instituzioak diren neurrian, berebiziko garrantzia du herritarroei entzun egingo diguten erakunde bihurtzea, herritarron parte-hartzea bermatuko dutenak, eta herritarron eguneroko beharrei erantzuniko dietenak.

Era berean, Udalen izaera publikoa indartu eta oinarritzko zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratu behar da, hori baita eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea eta langileon lan-baldintza duinak bermatzeko modurik onena.

6.1. Urretxu eta Zumarragako koordinazioan sakondu

Urretxuk eta Zumarragak herri-gune bakarra osatzen dute, elkarrekin bizi gara, lan egiten dugu eta elkarrekin ospatzen ditugu festak. Urretxuko eta Zumarragako udalen arteko koordinazioan are gehiago sakondu behar da, baliabideak optimizatuz eta indarrak bilduz, hori da logikak eta zentzuak eskatzen diguna. Aralarrek ikuspegi hori praktikan jarriko du eta era bateratuan egingo dugu lan: Urretxu-Zumarragarako komite bakarra eta programa bateratua diseinatuz, lantaldeak eratuko ditugu, baina erronka eta lan-ildoka, eta ez herrika.

6.2. Udalgintza parte-hartzailea, herritarron ekimenean eta demokraziaren zentzurik sakonenean sinesten dugulako

Udal administrazioak gainerako instituzioak baino erraztasun gehiago ditu, berez, herritarrengandik hurbil egoteko, herritarren entzuteko eta haiekin elkarlanean jarduteko, dela norbanakoekin, dela herriko elkarteekin, bizilagunen mugimenduekin, zein gainerako eragileekin. Herritarren parte-hartzea zehar-lerroko politika izango da Aralarrentzat,

udaleko sail guztietan zabalduko dena, eta mekanismoak eta dinamika egokiak jarriko dituen elkar eragiteko.

Parte-hartze honek eguneroko dinamika izan behar du, eta horretarako bitartekoak ezarriko ditugu. Baina bereziki aktibatu beharrekoak dira herriaren etorkizunerako berebiziko garrantzia duten erabakietan, hirigintza plangintzetan, inbertsio handietan, herritarren erabilerarako izango diren instalazioen diseinuan, eta abarretan.

Hartu beharreko neurrien artean hauek proposatuko ditugu:

- Parte-hartze plangintzak diseinatzea, garatzea eta lantzea, udaleko sail guztietan garatzeko.
- Udaleko bestelako plangintza, diagnostiko, azterlan eta proiektutan parte hartze mekanismoak txertatzea.
- Herritarrekin komunikazioa hobetzea eta elkarri eragiteko bitartekoak jartzea, presentzialak eta sarekoak.
- Hurbileko ekipamenduei balioa ematea (kiroldegiak, kultur etxeak, gaztelekuak, haur txokoak...), parte hartzerako ate moduan planteatuz.
- Herriko elkarten esku baliabideak jartzea (biltzeko, euren lana garatzeko... azpiegitura zein bitarteko teknikoak).
- Interes orokorreko gaietan parte-hartze sistema ezberdinak indarrean jartzea (parte-hartze dinamikak, idatzizko ekarpenak, kontsultak...).
- Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuen esperientzian sakontzea.
- Parte-hartzean oinarritutako kudeaketa ereduetan sakontzea.
- Herritarren Parte-hartze Erregelamendu bat egitea, era berean, parte hartzea bultzatuta, esku-hartze sozialeko mota desberdinak aintzat hartuko dituen, aplikatuko den herriaren espezifikotasunen arabera.
- Herritarrei prestakuntza emateko plan bat garatzea, bai norbanakoentzat, bai elkarteentzat ere. Elkarten kudeaketa, parte-hartzea bultzatzeko tresnak... aztertuko ditu.
- Departamentuen edo sailen arteko parte-hartzerako tresna gisa foro zibikoak garatzea. Gai batek zinegotzigo bati baino gehiagori eragiten badio egingo dira foro horiek. Eztabaidan aritzeko eta proposamenak aurkezteko esparruak dira, eta amaitzeko bozketak egiten dira. Hartara, udal erakundeak konpromisoa hartzen du azken emaitza betetzeko, eta, hitzartutakoa beteko dela zaintzeko, jarraipena egiteko batzorde iraunkor bat sortzen da (hori ere bozketa bidez). Gero horrekin lan egiten jarraitzen da.
- Informazio batzordeen erregulazio organikoa egitea, udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek parte hartuta. Publikoa izango da, eta, hartara, ahalbidetuko da kalte egindakako edo interesa duten herritarren taldeak bertan egotea eta ahotsa izatea.

- Sektorekako kontseiluak sortzea. Esparruko elkarteek esku hartuko dute horietan, funtsean, eta beren helburua izango da lortzea udal zerbitzu publikoetako kudeaketan eta erabakiak hartzean kolektiboak inplikatzeko.
- Gizartearen errealitatea eta parte-hartzea ezagutzeko behatoki bat jartzea martxan, datu base bat sortzeko. Hain zuzen, azterketa soziologikoetatik eta, batez ere, herritarrei egindako inkestetatik lortzen den informazio guztia bertan sartzen joango gara, hartara, ordezkatzeko maila handi baten bidez (udalerriko herritarren %2ri kontsulta egitea dakar, adinaren, sexuaren... arabera ordezkatuak), udalaren eskumen diren gaietan iritzia eta proposamenak jasotzeko aukera izango da.
- Administrazio publikoko gaietan edo aferetan interesa duten herritarren taldeentzat, eskura jartzea lokal edo instalazio publikoak.
- Erabakiak hartzeko organo desberdinen aurrean herritarrek proposamenak egiteko duten eskubidea aitortzea.
- Erreferenduma edo herritarrei galdeketa zuzena egiteko baliabidea erabiltzea, tokiko intereseko ikuspegitik baloratzeko edo ebazteko lurralderako garrantzi berezia duten gaiak, hala nola "makroproiektu" izenekoak. Prozedura hori hasiko dela iragartzeak "de facto" ekarriko du erabaki edo adostasun hori ezin baliogabetuzko izatea.
- Ideien lehiaketa irekiak bultzatzea, lurralde antolamenduan eragin berezia duten planei eta proiektuei ekiteko orduan.
- Udalerrri ertainetan eta handietan Auzoko edo Barrutiko Batzarrak sortuko ditugu, parte-hartze horizontala bultzatzeko helburuarekin. Auzoko batzar horien oinarritzko lana izango da hiriak diseinatzea, espazio publikoak, hornikuntzen aldetik dauden beharrak adieraztea... Horietan, bultzatuko dugu bizilagunen elkarteek eta komunitateek parte hartzea, eta bai norbanakoek ere.
- Interes nagusiko gaietan, besteak beste, aurrekontuetan eta hirigintzan, audientzia publikoak egingo ditugu.
- Herritarrek parte hartzeko eta kontsultak egiteko foro gisa, udalaren webgunea erabiltzea sustatuko dugu.
- Hiriko edo Herriko Kontseilua sortuko dugu, udalerrian parte hartzeko organo goren moduan.
- Herritarren arteko bitartekaritza egiteko eredu bat ezarriko dugu, bizikidetza dela-eta, bizilagunen artean sortzen diren gatazka txikiak negoziatuta konpontzeko asmoarekin.
- Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak egiteko ereduak jarriko ditugu martxan.
- Azken batean, herritarren parte-hartzea bultzatuta Aralarrek lortu nahi dituen helburuak hauek dira:
 - Udalaren jarduera, lan eta zerbitzuei buruzko informazio zabalena ematea, aurreko atalean azaldutako bideak erabilia.
 - Udalaren kudeaketan herritarrek eta elkarteek parte hartzea bultzatzea, herrian edo hirian eta auzoetan elkartze jarduera sustatuta.

- Udalaren kudeaketa herritarrei gerturatzea, udal barrutiko auzo eta herrigune desberdinen arteko oreka eta elkartasuna bermatuta.
- Herritarren eskubideak gauzatzea.

Nolanahi ere, jakitun gara hiri eredu berri baterantz aurrera egiteak denon inplikazio handiagoa eskatzen duela erabakiak hartzean. Badakigu hori lortzea ez dela erraza izango, baina jendaurreko konpromisoa hartu nahi dugu: helburu hori lortzeko baliabide guztiak jarriko ditugu.

Formula berriak ikertzeak, saio-hutsegite eredu errazenaren praktikak eta, batik bat, irudimen eta borondate politikoak horretarako bidea emango dute. Gainera, barrutiko udal batzordeak eta tokiko erakunde txikiak zuzenean hautatzeko sistema proposatuko dugu, eta horiek modu autonomoan funtzionatzea bultzatuko dugu, parte-hartzea sustatzeko eta kudeaketa herritarrengana hurbiltzeko helburuarekin.

6.3 Kudeaketa gardena, gertukoa eta irekia

Proposatzen dugun informazio politikak helburu izango du auzoan, interesatzen zaion sektorean edo, oro har, hirian gertatzen dena jakin nahi duen norbanako edo talde orok erraz eskuratu ahal izatea informazio hori. Horretarako:

- Informazioko sistema arinez hornituko dugu udal webgunea, edukiak berehala eguneratzen dituztenez, hain zuzen.
- Udalerriko gune publikoetan eta hiriko toki estrategikoetan udal informazioa emateko puntuak jarriko ditugu.
- Herritarrei arreta emateko zerbitzu integral bat sortuko dugu. Saiatuko gara horren funtzionamendua arina izaten, irekiera orduak zabalduko ditugu, administrazio izapideak egiteko mekanismoak erraztuko ditugu eta hirietako auzo desberdinetan dibertsifikatuko ditugu zerbitzuak.
- Ordezkatuta gauden tokietan, alkatearen, zinegotzien eta udal teknikarien bulegoak irekita egongo dira herritarrak hartzeko. Zinegotzigo bakoitzean herritarrak hartzeko ordutegia zein den jakinaraziko da. Herritarrak kontuan izango ditugu, politikan dugun zeregina beti izango da beren aldarrikapenen transmisio uhala izatea eta haien ahotsa erakundeetan.
- Erreklamazioak eta iradokizunak egiteko eta aurkezteko postontzi bat izango du udal zerbitzu bakoitzak, eta horiei, gehienez ere, hilabeteko epean erantzuteko konpromisoa hartuko dugu.
- Erreklamazioak eta iradokizunak egiteko postontziak jarriko ditugu auzoetan, eta udal informazioko puntuetara lotuko ditugu.
- Administrazio informazioa eskura izatea unibertsalizatu nahi dugu, Internet bidez.
- Herritarren talde jakin batzuek esku hartzea eskatzen duten edo horiei eragiten dieten udal ekimenen publizitate ahalik eta handiena egingo dugu.

6.4. Kudeaketa zorrotza eta zerbitzuen kalitatea bultzatuko duena

Aralarren iritziz, udalak herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak diren neurrian, berebiziko garrantzia du herritarrek entzungo dituen erakunde bihurtzea, herritarren parte-hartzea bermatuko dutenak, eta herritarren eguneroko beharrei erantzungo dietenak. Horretarako, baina, ezinbestekoa da udalek finantzaketa egokiagoa izatea. Euskal Autonomia Erkidegoak Udal Lege propioa behar du. Saiakera ugari izan da aurrez ere, eta azkeneko saiakera ere antzua gertatu da. Lege horrek administrazio desberdinen arteko eskumenak ongi definitu, eta horietarako beharrezko bitarteko ekonomikoak bideratu beharko lituzke, hala nola udaletako kargu publikoen soldatak, talde politikoen araudiak eta herritarren parte-hartzea sustatzeko neurriak bildu beharko liriateke bertan.

Aralarren ustez, sinplifikatu egin beharko litzateke administrazioaren egituraketa, eta batez ere, enpresa publiko, fundazio, partzuergo eta mankomunitateen kopurua nabarmen murriztu beharko litzateke. Administrazioak gardentasun handiagoa eskatzen du, herritarrentzat zein kargu publikoentzat ere. Diru publikoa arduraz erabili behar da, eta egungo sare instituzionalak argitasun gutxi erakusten du.

Esku hartu beharreko beste arlo bat kontratazioena da. Kontratazio eta zeharkako kudeaketa ereduak ezbaian jarri, eta kontratazio publikoa lehenestea ezinbestekoa da Aralarren iritziz, instituzioen izaera publikoa azpimarratuz, eta langileen lan-baldintzak zein herritarrei eskainitako zerbitzuen kalitate duina helburu izanik. Kontratazio ereduak gizatiartzeko beharra bistakoa da, eta horretarako, klausula sozialak ezartzea lehenetsuneko kontua da, ikuspegi sozialetik zein ingurumen arlotik administrazioaren kudeaketa justuago bat bilatuz. Bidezko kudeaketaren alde egiten du Aralarrek.

Antolaketa mailan, udalen funtzionamendua aztertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu: kudeaketa hobetu eta funtzio bikoiztasuna ekidin behar da, baliabideak optimizatuta eta, hartara, herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua hobetuta. Arrazoizko kudeaketa, gertukoa eta parte-hartzean oinarritua egitearen alde egiten dugu Aralarren. Iruditzen zaigu aintzat hartu behar direla tokiko jardunak eragiten dien sektore guztiak eta arlo guztiak nabarmendu behar direla, zeharkakotasuna errealitate bihur dadin. Genero berdintasuna, gazteria, ingurumena, hirugarren adina, berezitasunak dituzten pertsonak eta gainerako zeharkako gaiak bere gain hartu behar dituzte tokiko sail guztiek, hartara, proposatzen diren politikak eraginkorrak izan daitezen.

Tokiko egiturak egokitu behar dira, teknologia berrien bidez, kudeaketa erabilita eta hobetuta, eta herritarrei zerbitzu moderno eta eraginkorra emanda:

- Izapideak bideratzea sinplifikatu eta arindu behar da: gai arruntak erabakitzeko gehieneko epeak programatuko dira, hiru hilabete baino laburragoak.
- Leihatila bakarraren sistema ezarri behar da, eta txostenei jarraipena egiteko, programa zorrotz bat.
- Txostenak erabakitzeko metodo moduan isiltasun administratiboa ez aplikatzeko konpromisoa hartuko dugu.
- Udalerrietako webguneetan "herritarrentzako karpeta" bat sortu behar da, sinadura elektronikoa erabilia, herritarren eta udalaren arteko konexio segurua izateko, edozein administrazio izapide bideratu ahal izateko etxetik, kexak edo iradokizunak egin ahal izateko, eta bai bide ireki bat izateko alkatearekin eta zinegotziekin ere.
- Udalaren informazio geografikoa emateko sistema bat ezarriko dugu, lurraldea kudeatzeko eta mantentzeko, hiriko altzariak kontrolatzeko, semaforoen sarea kontrolatzeko... Horrez gain, herritarrek katastroko informazioa erabiltzea lortu nahi dugu, eta bai hirigintzarekin lotutako agiriak eta ziurtagiriak sistematizatuta jaulkitzea ere.
- Udal bulegoetan herritartasun identifikazioko txartela bideratzea kudeatu behar dugu, sinadura elektronikoa bidez edozein udal izapide egin ahal izateko etxetik edo udalaren webgunetik (kontsultak, zergak ordaintzea, baimenen izapideak egitea, ziurtagiriak eskatzea...).
- Herritarrei informazioa emateko postuak jarri behar dira, udalaren zerbitzarira konektatuta daudenak, administrazio kontsultak eta izapideak egitea errazteko horien bidez.
- Herritarrei arreta emateko zerbitzu integral telematikoa eta telefono bidezkoa jarri nahi dugu abian, beste administrazio batzuetako kudeaketak egin ahal izateko udalerritik atera behar izan gabe, lehenbizi hitzarmena eginda autonomia eta estatu mailako administrazioekin.

Aralarren ohartzen gara askotan administrazio erakundeek planteatzen dituzten zerbitzuak ez direla egokitzen herritarren premietara. Hori dela-eta, gure konpromisoa da eskaintzen diren udal zerbitzuak banan-banan aztertzea eta horiek hobetzen saiatzea, ahal den neurrian, kontratatuta dauden langileen lan-eskubideak murriztu gabe horretarako.

Gure ustez, udalean aritzen diren langileek konplize izan behar dute abian jarri nahi ditugun politketan, eta, hori bideragarria izan dadin, nahitaezkoa da langile horiek dituzten eginkizunak sakon aztertzea. Lan egiteko sistema berriak aztertzea, ebaluatzea eta abian jartzea. Elementu horiek ezin dira alboratu egun, herritarrentzako zerbitzuen eskaintza hobetu nahi badugu. Metodologia horren bidez, giza baliabideak optimizatzea lortu beharko genuke, eta, gainera, zerbitzu hobea eskaintzea. Nolanahi ere, baliabideak optimizatzeak ez du ekarri behar langileen eskubideak murriztea, baizik eta horiek egunez egun egiten duten lana hobetzea. Lan egiteko ereduak oinarri izan behar du helburuak

zehaztea eta itxaropenak sortzea udal langileekin, baina ahaztu gabe gure lana herritarrei zor diegula eta horiek direla gure jardunaren oinarria.

Beste alde batetik, gardentasuna udalerrietako kudeaketako gune guztietan aplikatu behar da. Izan ere, zenbat eta gardenagoa izan udala, gizartea orduan eta bidezkoagoa izan dadin lortzen joango gara. Udalerrien kontratazio politikek premisa horri lotuta joan behar dute, eta, horrenbestez, enplegu publikora heldu ahal izateak estu lotuta joan behar du berdintasun printzipioei, merezimenduei eta gaitasunari, eta, beraz, hautaketa prozesuak helburu diren lanpostuen ezaugarrietara egokitu behar dira deialdi publikoetan. Aldi baterako kontratazioetan eta ordezkapenetan gardentasuna nagusi izango da, eta, horretarako, sindikatuekin hitzartutako irizpideek zehaztutako lan-poltsa publikoak sortuko dira.

Azken batean, arautu gabe egiten denaren aurka borrokatuko gara eta, alderdi objektiboen arabera, lanpostuak baloratzeko prozesuak garatzea planteatuko dugu. Alderdi objektibo horiek lanean inplikatzeari lehentasuna emango diote, erantzukizunari, arduraz aritzeari eta lan-baldintza zailenei (txandak, malgutasuna, lan nekeza). Laburbilduz, hauek guztiak lortu nahi ditugu:

- Langileekin lotutako plangintza bat ezartzea, legegintzaldi osorako, zerbitzuak hobetzeko lehentasunezko helburua lortu ahal izateko, eta, hiriaren eta horren zerbitzuen garapen iraunkorra lortzeko beharrezkoak diren plazak eta lanpostuak objektiboki zehaztuta, herritarrei arreta egin ahal izatea lortzeko.
- Funtzio publikora heldu ahal izateko eredu gardena, arina eta objektiboa ezartzea, sindikatuetako ordezkariekin negoziatua eta udal taldeekin hitzartua.
- Barne sustapenerako prozesuak bultzatzea, lanarekin lotutako ibilbidea garatzeko aukera izateko, eta, hartara, gaitasun handieneko pertsonak eta gehien inplikatzen direnak lehenesteko. Horretarako, prozesu irekiak eta gardenak egingo dira, dagozkien oposizio lehiaketetan.
- Aldi baterako langileen kopurua murriztea egituraz saihestu ezin den kopururaino.
- Lanpostuen balorazioak garatzea, besteak beste, hauek aintzat hartuta: erantzukizuna, lan nekeza izatea, agintearen dimentsioa eta herritarrei arreta egitekoaldiak.
- Zerbitzua pribatizatuta dagoen kasuetan, zerbitzuak emateko kontratatuta dauden enpresak kontrolatzea. Hartara, saiatuko gara enplegu egonkorra eta kalitatekoa lortzen, eta horretarako lehenetsiko ditugu esleipenetan kooperatibak eta ekonomia sozialeko enpresak, oro har, eta enpleguaren kalitatea eta horren egonkortasuna sustatuko dugu.

Kudeaketa ekonomikoa eta zerga-sistema

Gaur egun, udaletako diru kutxak hornitzen dituzten zerga ugari arautzen dituzten eskumenak Batzar Nagusien esku daude. Lurralde Historikoen Legea erreformatzea proposatzen dugu, batetik, udalerriei eskumen horiek emateko; eta bestetik, Toki Ogasunen finantzaketa iturrien erreforma egiteko. Udalen egoera ekonomikoa ez da ona. Gehienek zor handia dute duela asko. Argi dago lortzen dituzten diru-sarrerak ez direla nahikoak gastu mailari aurre egiteko, eta, are gutxiago, eskatzen dugun gizarte zerbitzuen hobekuntzari erantzuteko. Aralarrek proposatzen du Toki Ogasunen finantzaketa iturrien gaineko eztabaida sakonari ekitea, honako hauek proposatuta:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga sustatzea (antzinako hiri-lurraren kontribuzioa), higiezinaren merkatuaren elementu dinamizatzailea bihur litekeelako. Horren ondorioz, eskaintza handituko litzateke eta prezioak jaitsiko lirateke. Hori guztia era honetan:
 - Erabileren arabera bereiztea zerga, lurzorua eta eraikuntza bereiziz, eta lehenengoan zerga askoz ere handiagoa ezarriz.
 - Hutsik dauden etxebizitzak askoz ere handiagoa den errekaratu baten bidez zigortzea.
 - Balio katastralak eguneratzea, gutxienez, merkatuko prezioaren erdira.
 - Familia ugarietarako edo diru-sarrera txikiagoak dituztenentzako hobariak sortzea.
 - Zenbait tasatan (uraren hornidura eta saneamendurako tasak, zabor tasak, TAO, ibilgailuak kentzeko tasak) eta zergatan (trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga) irizpide ekologikoak sartzea. Irizpideak izan behar du kostuak erabat berreskuratzea, eta, aldi berean, ekitatearen printzipioa mantentzea. Hartarako, salbuespenak dauden minimoak ezarri behar dira oinarritzko kontsumoetarako, eta gehiegizko kontsumoak zigortzen dituzten pixkanakako tarifak. Politika horiez gain, beste eskumen arloetan bestelako politikak ere egon beharko lirateke, hala nola BEZaren modulazio ekologikoa (zero tasa berrerabiltze eta birziklatze jardueretan, tasa murriztua ingurumena errespetatzen duten produktuetan, eta tasa altua kalte egiten diotenetan).

7. Bakegintzan Gernikako Akordioa da gure iparra

Hauek dira hurrengo urteetarako zehaztu ditugun erronka eta lan-ildo nagusiak, baina ahaztu gabe gure herri honek hainbeste desiratzen duen bakegintza eta normalizazio politikoa. Giza eskubide guztien defentsa salbuespenik gabe, bide politiko hutsak, eta preso guztien aldeko jokabidea bermatuko dugu. Bakegintza gizartearen oinarrietara, gure

herrietara eraman nahi dugu, ekarpen handia egin dezakegula uste dugu eta **Gernikako Akordioa** izango da gure bide-orria.